

Bertsolaritza. Politikaren diskurtsoa 2001eko Txapelketa Nagusian

(Oral verse. The political debate at the 2001
National Championship)

Otamendi, Andoni
Urnietako Egape Ikastola. Aranzubi, z/g. 20130 Urnieta

BIBLID [ISBN: 978-84-8419-218-3 (2011), 265-302]

Nire helburua bertsolarien testuaren azterketa bat eginez kontestua edo testu-ingurua ezagutzea da. Testua kontestu sinboliko batean dago kokatua: Euskal Herriko Bertsolari txapelketa nagusiko finalean, testu-inguru sozio-politiko eta kultural batean, euskal kontestu batean.

Giltza-Hitzak: Bertsolaritza. Politikaren diskurtsoa. Sinbolo eta errealitatea. Naziotasuna.

Mi objetivo es analizar el texto de los bersolaris, para conocer su contexto. El texto está situado en un contexto simbólico: en la final del campeonato nacional de bersolaris de Euskal Herria, en un contexto socio-político y cultural determinado, en un contexto vasco.

Palabras Clave: Bersolarismo. El discurso de la política. Símbolo y realidad. Nacionalidad.

Mon objectif est d'analyser le texte des bersolaris, pour connaître son contexte. Le texte se situe dans un contexte symbolique : à la finale du championnat national des bersolaris du Pays Basque, dans un contexte socio-politique et culturel déterminé, dans un contexte basque.

Mots-Clés : Bersolarisme. Le discours de la politique. Symbole et réalité. Nationalité.

SARRERA

Azterketa hau 2001eko Bertsolari Txapelketa Nagusian kokatua dago. Ikuspegi askok bihurtu dute garrantzitsu, niretzat, txapelketa hura. Garai politikoa berezia da (garai guztiak izan arren berezi). Gizartea distentsio egoera batean dago, Lizarra-Garaziko akordioaren ondoren ETA-k su-etena amaiturik bazuen ere.

2001. urtean bertsolaritzaren saio erreferenteenaren politikaren diskurtsoa aztertu nahi dut. Txapelketa Nagusiko saioa izatean bertsolariak belodromoari, Euskal Herriaren sinbolo bezala aurkeztuari, eta telebistatik, zuzenean, jarraitzen zuten entzulego zabalari kantatu zion. Horrek duen traszendentzia herri txikietako saio batetik haratago dago.

Ekintza komunikatibotik haratago, mundu ikuskera bat eman, transmititu nahi izaten da edozein diskurtsotan.

Azterketa honek bi helburu ditu. Lehenengoa testuaren interpretazioa da. Bertsolariek osatutako testuarekin elkarriketa moduko batean, testuaren interpretazio bat. Bigarreno helburua belodromoa bere osotasunean harturik testuinguru horren azterketa izango da.

1. MARKO TEORIKOA

Gertakari bat aztertzea edo gertakari batetako testua aztertzea, gertakari horren kontestua edo testuinguruaren aztertzea da.

Azterketaren nondik norako teorikoaren gakoa Sperberrek jorratua da: *interpretamos un enunciado del código (perceptivo, simbólico, enciclopédico) y del contexto*.

Errealitatearen gainean egindako errepresentazioak taldeari buruz egindakoak dira. Errealitateari buruzko ikuskera jakin bat sortuz.

Antropologian azalpen zenbait eman ohi dira: deskripzioak, erreproduzioak eta interpretazioak. Geertz-ek deskripzioa ezinezkotzat jotzen du, beti interpretazioa da bere ustez. Errealitatea ulertzeko kriterioak jartzen baititugu. Erreproduzioak ere interpretaziotzat jotzen ditu. Datu etnografikoak ere interpretazioak emanak direlako. Jakintza inplizitu edo ustezkoak ere, aldi berean, interpretazioak baitira.

Nire abiapuntua errealitate sozialek eraikitako diskurtsoa eta diskurtsoak eraikitako errealitate sozial bat erreparatzea da.

Diskurtsoaren analisiaren marko teorikoa Dan Sperberrek dakar. Autore honek pentsamentu logiko eta prelogikoa, zientifikoa eta magikoaren hurbilketak antropologiatik egindako irakurketak dakarzk, 3 hipotesi nagusi hartzen ditu kontutan horretarako:

- Una hipótesis histórica sería la del evolucionismo de Lévy-Bruhl (1910, 1922, etc.) según la cual el pensamiento racional sería el resultado de un desarrollo tardío en la historia de la especie humana, después de un primer estadio en el que toda forma de pensamiento habría sido simbólico.
- Una hipótesis ontogenética. La racionalidad conceptual es, en el desarrollo del niño, una adquisición posterior a un estadio caracterizado, en términos de Piaget (1968), por representaciones “preconceptuales”, y “simbólicas”.
- Una hipótesis cognitiva sobre la génesis de los pensamientos particulares, según la cual el pensamiento racional sería una explotación y una utilización más dirigidos y más atentos del pensamiento simbólico. En términos de Neiser: “El pensamiento racional es “secundario” en el sentido en el que trabaja sobre objetos ya formados por un “proceso primario”.

1.1. Dispositivo simbólico, dispositivo racional

Si se comprueba que el pensamiento simbólico es necesariamente construido a partir de un mínimo tratamiento racional previo, entonces el simbolismo no tendría que haber precedido la racionalidad ni en la historia de la humanidad ni en la de los individuos.

Un estímulo suscita diversos tipos de procedimiento mental. El estímulo es identificado y reconocido, ejemplo: una onda sonora como timbre. El estímulo identificado puede recordar otras representaciones mentales, ejemplo: timbre como una visita que desearía ser recibida (conocido como asociación de ideas, de connotación, o significación simbólica). Sperber lo llamaría evocación simbólica.

La identificación de un estímulo puede servir de premisa en un razonamiento: identificación de un sonido de timbre, que alguien quiere que se le abra la puerta. Este es el tipo de procedimiento que está en el origen del pensamiento racional.

Se llamará “dispositivo” al conjunto de operaciones que intervienen en un mismo tipo de procedimientos. Se denominará “dispositivo perceptual” al dispositivo que acepta como *input* la información facilitada por estímulos externos y que emite como *output* una identificación de los estímulos bajo forma de proposiciones elementales. Se llamará “dispositivo simbólico” a un dispositivo que admita como *input* proposiciones (provenientes del dispositivo perceptual o bien de otras fuentes) y que dé como *output* otras proposiciones “evocadas” por el *input* y recuperadas de la memoria a largo plazo o construidas a partir de ella. Recibirá el nombre de “dispositivo racional” un dispositivo que acepte como *input* proposiciones y que genere como *output* otras proposiciones “lógicamente” derivadas del *input* (y de premisas disponibles en la memoria).

Estas nociones permitirán plantear sobre los procesos mentales simbólicos y racionales tres hipótesis incompatibles entre sí. ¿La información derivada del dispositivo perceptual es tratada simbólicamente y, después, racionalmente? ¿O

bien, de las dos maneras simultáneamente? ¿O primero racionalmente y por último de manera simbólica?

La primera hipótesis es la comúnmente aceptada: el *output* del dispositivo perceptual sirve de *input* al dispositivo simbólico; el *output* del dispositivo simbólico sirve puede servir de *input* al dispositivo racional (ambos dispositivos abastecen a la memoria y tienen acceso a ella). Es preciso un cierto esfuerzo para pensar racionalmente, por ejemplo, para construir o comprender un argumento lógico.

La segunda hipótesis es la menos consistente y la menos interesante: el *output* del dispositivo perceptual sirve de *input* simultáneamente al dispositivo simbólico y al dispositivo racional. Según el grado de atención, o bien el dispositivo simbólico, el dispositivo racional realiza la mayor parte del tratamiento global.

La tercera hipótesis es la más paradójica: el *output* del dispositivo perceptual sirve de *input* al dispositivo racional y el *output* del dispositivo racional puede servir de *input* al dispositivo simbólico.

Estas tres hipótesis son compatibles con los datos introspectivos más generales. En ciertos casos el método racional no presupone ningún tratamiento simbólico, en segundo lugar que el tratamiento simbólico siempre presupone un mínimo tratamiento racional. Si esto es así se debe tratar de un versión cíclica de la tercera hipótesis.

1.2. De la construcción del simbolismo al tratamiento racional

El dispositivo racional puede ser considerado como derivado de las conclusiones a partir de premisas: algunas de las premisas son el *output* del dispositivo perceptual, otras son suministradas por la memoria.

Apenas hay razón para dudar que tales contribuciones tienen lugar y juegan incluso un papel esencial en el pensamiento creador. Un cierto tratamiento simbólico es necesario para completar el análisis racional. En algunos casos la evocación simbólica es el procedimiento conviene. Si esta descripción constituye una aproximación aceptable, entonces, el tratamiento simbólico debe seguir un tratamiento racional previo, y puede, si tiene éxito, provocar un tratamiento racional suplementario. Cuando el *input* corresponde a anticipaciones previas, todas las premisas necesarias para deducir las conclusiones pertinentes a partir del *input* son ya accesibles y no es necesaria ninguna evocación simbólica.

Hay casos en los que la evocación simbólica facilita premisas cruciales para el análisis racional; podría sin embargo tratarse de feed-back más bien que de un fenómeno pre-racional.

Hay casos en los que la información memorizada necesaria para el análisis racional es directamente accesible y en los que, por consecuencia, no se requie-

re ninguna evocación simbólica, ni para la puesta en marcha ni para el desarrollo del análisis racional.

Ningún dato impone o incluso sugiere con firmeza considerar que el procedimiento simbólico es una condición previa para el tratamiento racional. Por otra parte, hay datos que muestran que en ciertos casos el tratamiento racional no requiere ningún análisis simbólico previo.

1.3. Evocación y asociación

El tratamiento simbólico requiere un mínimo de análisis racional previo. Todo análisis del simbolismo debe responder a dos cuestiones fundamentales: a la cuestión de los estímulos y a la cuestión de la evocación.

Los antropólogos parten de que las ideas se asocian entre sí según la semejanza y la contigüidad, que las ideas asociadas tienden a evocarse continuamente. En psicología experimental, hipótesis de esta naturaleza han sido rechazadas. Como este rechazo no ha ido acompañado de una teoría alternativa que tuviese en cuenta las asociaciones oníricas, poéticas o culturales los psicoanalistas, los retóricos y los antropólogos continúan empleando los principios asociacionistas, aunque sea con otros términos.

La mayor parte de los humanos organiza ritos simples o complejos. Estos ritos, incluso los antropólogos para quienes los efectos indirectos sobre el status social, la cohesión de la sociedad y la explotación económica son los factores cruciales sobre la explicación de los ritos las entienden a partir de dos propiedades que se le atribuyen al simbolismo cultural: su selectividad y su direccionalidad.

Los estímulos muy frecuentes o muy triviales deberían ser más evocadores que los estímulos provenientes de lo ordinario. Por otro lado, las representaciones deberían de ser las más contiguas o las más semejantes al mismo. Estas dos suposiciones se ven radicalmente invalidadas por el simbolismo cultural. Es decir, ser un asociado próximo de un estímulo no es ni necesario ni suficiente para ser evocado por él.

Los antropólogos son propensos a suposiciones como:

- Todo estímulo puede provocar una evocación, en determinadas condiciones.
- Toda representación puede ser evocada por cualquier estímulo, en determinadas condiciones.

Entre las evocaciones ocasionales y las asociaciones más ampliamente compartidas y más regulares del simbolismo ritual, existe un abanico ininterrumpido de fenómenos intermediarios (por ejemplo en poesía o en las artes plásticas). Los antropólogos deberían rechazar los modelos de simbolismo que no son

compatibles con los datos experimentales de las asociaciones. Se puede descartar toda gramática del simbolismo.

Los antropólogos han desarrollado diferentes versiones de lo que podría llamarse el “asociacionismo cultural”. Solo una mínima parte del simbolismo cultural es objeto de enseñanza, y esta enseñanza es en sí misma simbólica. El único mecanismo de aprendizaje que puede intervenir es la construcción y el afianzamiento de asociaciones a partir de la contigüidad y de la semejanza. Las asociacionistas culturales supondrán que ciertas asociaciones particulares son suscitadas en un contexto cultural estableciendo contigüidades deseadas y poniendo el acento sobre semejanzas pertinentes.

Resumiendo:

- El conocimiento de las asociaciones anteriores no es suficiente para predecir qué estímulo tiene más posibilidades de ser tratado simbólicamente.
- El conocimiento simultáneo de un estímulo y de sus asociaciones anteriores no es suficiente para predecir qué evocaciones tienen más posibilidades de ser suscitadas.

1.4. Evocación y contexto

La evocación es una función no solo del estímulo y de las asociaciones anteriores, sino también del “contexto”. Lo necesario es conocer el contexto. Pero en general las referencias al contexto sirven para dejar diversas cuestiones en suspenso, y, en esta perspectiva el estudio del simbolismo no es una excepción.

Las asociaciones anteriores no limitan de ninguna manera la clase de las evocaciones posibles. En estas condiciones, la selección contextual opera sobre todo el abanico de las evocaciones disponibles en la memoria y la fuerza de las asociaciones no juega en el mejor de los casos más que un papel auxiliar; de este modo la cuestión dejada en suspenso es central en tanto que la estudiada resulta marginal.

No es el contexto sino la representación intelectual del contexto la que es susceptible de ejercer un efecto directo sobre el tratamiento simbólico.

El único modo en que el contexto pueda intervenir en los procesos conceptuales tales como el proceso simbólico, es que la síntesis, operada por el dispositivo racional, de una variedad de informaciones. Pero entonces reconocer el papel del contexto y tratar realmente de explicarlo significaría admitir que el tratamiento racional es una condición previa de la evocación simbólica; ni los asociacionistas clásicos, ni los asociacionistas culturales están dispuestos a ello: su postulado fundamental es que la evocación simbólica precede a la comprensión racional.

Cada vez que la representación perceptiva de un estímulo adicional en un contexto dado no pueda ser tratada de manera completa a partir de los recursos accesibles al dispositivo racional en ese momento, se estará efectuando un tratamiento simbólico.

Tres hipótesis:

- Cuando una información cuestiona los principios sobre los que se fundamenta un sistema cognitivo, será tratada simbólicamente, cualquiera que sea el grado intelectual.
- Cuando el grado de atención intelectual es muy bajo, la mayor parte de las informaciones tratadas tienden a recargar el dispositivo racional y, por consiguiente, a provocar una evocación simbólica. Esta predicción abre una alternativa para ciertos estados de desorganización mental: cuanto más débil es el grado de atención intelectual, mayor es el carácter simbólico del desarrollo del pensamiento.
- Cuando más numerosos y adecuados sean los esquemas que un sujeto puede utilizar en la interpretación de las informaciones sobre las que centra su atención, menos inclinado se sentirá a interpretarlas simbólicamente. El desarrollo de los conocimientos científicos y técnicos multiplica las posibilidades de interpretación y de interacción racionales con el entorno.

Cuando el dispositivo racional está sobrecargado, el tratamiento simbólico así provocado consiste en buscar a partir de informaciones disponibles en la memoria a largo plazo premisas suplementarias que, de haber sido accesibles de golpe, habrían permitido un tratamiento racional completo de *input* inicial.

La dirección de la evocación dependerá de la naturaleza del problema intelectual suscitado. Además del *input* inicial del dispositivo racional y el estado de este, un tercer factor juega un papel crucial para determinar la evocación: el contenido de la memoria a largo plazo. Del hecho de que los miembros de un mismo grupo social adopten las mismas "creencias", no se desprende que tengan los mismos pensamientos. Hay un cuarto factor: la red de las asociaciones.

Entre un estímulo y su evocación se da un vínculo asociativo. Además cuanto mayor es la contigüidad o la semejanza, tanto más fuerte será la asociación, y mayor la probabilidad de evocación mutua.

1.5. Conclusión

El hecho de que en condiciones apropiadas cualquier estímulo pueda evocar cualquier representación descarta toda gramática o todo modelo de tipo gramatical del simbolismo.

Beraz, honen guztiaren baitatik abiatu behar da testuaren eta testu-inguruaren interpretazioa egingo dut. Testu baten interpretazioa agortezina bihurtzeko, erreferentzia ezberdinek beste erreferentzia zenbait dakarrelako. Alde horretatik testuaren interpretazioa testuarekin egindako elkarrizketa bihurtuko da.

2. BERTSOLARITZA

Bertsolaritzak darabilen diskurtso politikoaren kokapen moduko bat eman diezaguke azterketa honek.

Bertsolaritza Euskal gizartearen komunikazio esparrurik bizienetako bat da. Gizartearen ispilu eta iritzi sortzaile da aldi berean. Gizartearen zati izanik, gizarteari kantatzen dio. Horrek gizartearen ispilu izatera darama eta era berean, bere dinamotasunak, eta etengabeko bat-batekotasunak gizartearen iritzian eraginez, diskurtsoa sortzen du, etengabe. Urteetako prestigio irabaziak, “Feeck-back” horretan, gainontzeko gizarte eragileen ondoan erreferente bihurtu du bertsolaritza.

Bertsolaritza euskal kultura eta euskalgintzaren barruan dago kokatua. Euskalgintzaren esparru bezala onartua dago ordura arte, behintzat (2001. urtea). Gerora begira, era berean jarraitzea edo ikuspegi ideologiko eta partehar-tzaileen politika ikuskera zabalagoa izatea da beste aukeretako bat.

Normalizatua ez dagoen hizkuntza eta urteetako Estatu-nazioen kultura ez homologatuaren barruan bizirik iraun duen eta bizirik dagoen fenomeno bat da.

EHBE (Euskal Herriko Bertsozale Elkartea) da txapelketaren antolatzailea. EHBE-ren proiektuaren ardatza bertsolaritzaren esparrua indartzea eta geroratzeaz gain, euskal kulturagintza eta euskalgintzaren barruan eragitea da. Politika aniztasunean kokatua badago ere, Euskal Herriaren existentzia du abiapuntu.

Joxerra Gartzia bertsolaritzaren baliabide erretoriko poetikoak aztertu zituen bere tesian. Bertan, bertsolariaren helburua testu-inguratuari eragitea eta emozioak sortzea dela ondorioztatu zuen. Denboraren joanean, diskurtsoak aldatu egin dira, gizarteak aldatuz joan den neurri berean.

Hori horrela izanda, bertsolariaren diskurtsoan gizarte jakin baten errealitatea azter daiteke. Nik diskurtsoaren azterketa soziala egin nahi nuke.

Nik aztertuko dudun une eta gunea 2001eko Bertsolari Txapelketa Nagusian dago kokatua. Hain zuzen ere, Arratsaldean egin zuten ariketa batean. Zortzi bertsolariek kartzelako lana egin behar izan zuten. Bertsolari guztiak aparte dagoen gela batetara eramane zituzten bat ezik. Eta hari hiru bertso nahi zuten neurri eta doinu kantatzeko gaia jarri zioten. Ondoren, gainontzeko guztiak ere, bana-banaka, gai horri kantatu zioten.

Abertzale eta konstituzional zale terminoak erabiliko ditut. Badakit, azaleko bereizketa bat besterik ez dela. Abertzaleen barruan espektro oso zabal bat

badagoelako. Abertzaleak Euskal Herriaren existentzia onartzen dutenak balira bezala hartzen ditut. Autodeterminazio eskubidearen alde daudenak, nolabait esatearren. Hizkuntzaren sentsibilizazio bat dutenak, Euskal kulturaren aldeko atxikimendu bat dutenak. Konstituzional zaleak, berriz, Espainia eta Frantzia nazio bakartzat dutenak izango lirateke.

3. AZTERKETA

Komunikazioa helburu duen ahozko espresio honetan igorlea eta hartzailea testuinguru berean daude kokaturik. Testuinguru horren osagaiak zenbatu ezinak dira. Beraz, azpi-testuinguru denak kontzienteki kontutan hartzea ezinezko bada ere, garrantzitsuenez ohartaraztea egokia da.

Testuingurua bi esparruk osatzen dute: toki fisikoak eta egoerak. Bestela esanda, ikus daitekeena eta ikusi ezin dena. Toki fisikoaren barruan herria, antzoki edo dena delakoa, oholtza, bertsolariak, entzulea, gai-jartzailea, loreak... leudeke.

Toki fisikoa datu objektiboekin zehaztu daitekeena da. Adibidez: Leitzañ gauden, herriko festetako saioa da, sei bertsolari daude, oholtza laukia da, frontoia betea dago...

Egoera atalaren barruan ideia konpartituak, hartzaile eta igorleei buruzko ikuspegiak eta gaia daude elkar nahasian.

Pentsamendu kolektiboa: oroimen kolektiboa, ideia konpartituak, sinesmenak eta usteek osatzen dute. Homogeneotasuna erabatekoa ez da izaten. Arlo batzuetan pentsamendu orokor batetik norbanakoarenera heldu gaitzke.

Bertsolariei buruzko ikuspegia: Ikusten ez den baina datu zehatzetatik (Nafarroako txapelduna izan zen, eraikuntzan egiten du lan) berari buruzko uste konpartitu eta ez konpartituetara dagoenak osatzen du.

Hartzaileari buruzko ikuspegia: Ikusten ez diren datu zehatzetatik (herri honetan atzo istripu bat izan zen, euskal idazle bat bertakoa da) uste edo sinesmen batek sinbolizatzeraino (entzulea hotza da edo hartzailea Euskal Herriaren sinbolo da) doan konbinazioa da.

Gaia: oinarrian dagoen mundu objektibo eta subjektiboaren barruan ematen den egoera erantsi bat da. Nori jartzen zaion, nork jartzen duen, non jartzen den, noiz jartzen den... baldintzaturik dagoena.

Hau guztia aldakorra eta subjektiboa da uneoro.

Finalaren egunean zortzi bertsolariei, kartzelako lanean, jarri zitzaien gaia politikaren ikuspegiarena izan zen. Esan genezake, bertsolari bakoitzak bere izatetik kantatzen duela. Ekidin zezaketen arren, bakoitzak bere izan eta izenetik kantatzen du. Hartu zezaketen beste norbaiten papera, baina, inork ez zuen hartu.

Gaiak honela zioen: “Aturritik Ebrora herri bat badela belodromoa izan liteke lekuko. Urte asko daramatzazu zuk nahi baino tristura gehiago ikusiz. Zure ondorengoentzat beste zer bait nahi zenuke”.

3.1. Gaiaren inguruan

Honelako gai bat finaleko egunean, kartzelako gaia, denek kantatzen duten gaia izatea, gizarteak duen behar bati erantzunez dago egina. Horrela planteatu bada, egokia dela ikusi delako da. 1997ko finalean politikaren gairik egon ez bazen, ziurrenik, horrelako gai baten komenigarritasuna zalantzan zegoelako izango zen arrazoietako bat. Edo eskari hori gizartearen zati batena izango zela eta ez gehingoarena.

Gaiak Herriaren existentziarik ez du baieztatzen. Bertsolariak baieztatu edo ukatu lezake herriaren existentzia. Herri edo nazio baten existentzia baieztatuko balu gaiak, ikuspegi abertzale batetik egina legoke, eta herri baten edo nazio baten errebindikazioa egingo luke. Aldiz, era horretan, bertsolariari dagokio azken hitza. Halere, herriaren existentziaren iradokizuna badago. Eta, gainera, konstituzional zaleek onartzen ez dutena ekartzen du. Herri hori zazpi probintziakoari deritzo: “Aturritik Ebrora”. Gaiak ez du beste inongo planteamendurik egiten. Ez du beste aukerarik uzten: hiru probintzi, lau. Gaia zehaztasun gutxiagokoa izan zitekeen: Pirinio inguru honetan herri bat badela... Hori bai, beti ere, bertsolariari utziz azken hitza.

Zergatik izan liteke belodromoa edo zergatik da belodromoa herriaren existentziaren lekukoa? Lau urtez behin ospatzen den Euskal Herriko bertsolari txapelketa honetan, jende multzo zabala eta anitza elkartzen da: zazpi probintziakoa, edade guztietakoa eta abertzaletasunaren espektro politiko guztia. Horregatik bihurtzen da Euskal Herriaren sinboloa.

Herri hitza kontzeptu kultural, linguistiko, identitario eta nazionalari dagokio. Kontutan hartu beharrekoa da juridikoki ez dagoela onarturik horrelako herri baten existentziarik. Beraz, lurraldetasun eta naziotasun arazo bat dago. Bi nazionalitate bakarrik dira posible lurralde horretan: Espainiarra edo Frantsesa.

“Urte asko daramatzazu zuk nahi baino tristura gehiago ikusiz” dio gaiak. Egoera konkretu bat suposatzen du honek. Ez du esaten urte asko daramazkizula... injustiziak ikusiz, heriotzak ikusiz. Edo ez du esaten nazkaturik zaudela edo angustia egoeran zaudela edo beldurturik zaudela. Egoera politiko hori deskribatzerakoan, beraz, tristura hitza hautatu du gai-jartzaile taldeak.

Tristura: Bertsolaria eta entzulea egoera konkretu batetara ekartzea du helburu hitz honek. Sentimendu konkretu honetara. Jende oro hartzen duen sentimendua da tristurarena, salbuespenak salbuespen. Euskal gizarte osoak izan lezakeen sentimendu bat: abertzale nahiz konstituzional zale. Tristurak ekartzen digun emozioaren barruan beste emozio eta sentimendu gehiago daude. Baina, ziur aski, zatitzaileak direnak eta gaiari orokortasuna ematen ez diotenak lirite-

ke. Belodromoan eta telebistatik begira zegoen jendeak (200.000 pertsona) sentitzen zuen zerbait zen. “Urte asko daramatzazu zuk nahi baino tristura gehiago ikusiz”. Zenbat urte diren ez du espezifikatzen eta, “urte asko” esaten duenean egoerari sekularizazio itxura ematen dio. Tristura egoeraren metafora bat da. Urte askotan gertatu denari tristura deitzen dio. Emozio bat da deskripzio eta metafora.

“Zure ondorengoentzat beste zerbait nahi zenuke”. Alegia, aldaketa posibleak eskatzen ditu gaiak. Baina horretaz gain, ez du planteatzen modu aseptikoa-goan: etorkizunerako zer nahi zenuke. Baizik eta bertsolarien ondorengoei utzi beharra dakar. Ondorengoak ez dira etorriko diren inmigranteak, seme-alabak, baizik. Gaiak, berak, etniaren eta odolaren bidezko herriaren pertenezia baieztatatu eta azpimarratzen du.

Gai honetan, beraz, denboraren hiru fase ezberdin daude: iragana, oraina eta etorkizuna. Iragana: Herri baten existentziari dagokiona da. Oraina: belodromoa (herriaren sinbolo) eta tristura. Etorkizuna: ondorengoentzako zein den zure nahi, alegia, irtenbidea.

Andoni Egaña

Egañaren hiru bertsoak:

Aturritikan Ebro tartean
gauza onik ezin soma,
inondik ere egin baitegu
erreten sakon-sakona;
nere aurretik aita nuen ta
aitan aurretik aitona...
Ez degu lortu, baina, haurrentzat
desio dut zoriona.
Behingoagatik lortu nahi nuke
jendearen jaramona!
Kartzeletako lau horma,
eskoltak hara ta hona...
Herri aske bat utzi nahi nuke
ta herrian aske gizona,
ta horretarako egin nahi nuke
Nere eskutan dagona.

Lortuko degun ala ez degun
denbora bera da juez,
ilusioa behintzat badegu,
horretan gaude indarrez.
Baina zergatik gabiltza denok
aurpegi ilun haserrez
Hemen oihu bat egin nahi nuke
esperantza gorazarrez.
Etorkizuna hobe delatza
egingo nuke nik trabes:
gure helburu ta amets
guztiak kunplitu baietz!
Badakit ondo asko gaudela
pentsakera desberdinez.
Postura denak onartzen ditut
baina ajolik eza ez.

Bizi dadila gure herri hau,
bizi bedi iritzia!
Askatasuna izan dedila
bake bidez iritsia!
Orduan pozik egingo nuke
askatasun irrintzia.
Maiz helburua aipatu arren,
bideak du garrantzia;
bidea zein den nik neuk bederen
ez dut oraindik ahantzia.
Zenbat gogo ta antsia!
Eta ate bat itxia.
Nik Euskadi bat amestu nahi dut
Inortxok ez irentsia;
Hori litzake nere haurrentzat
nik nahi dudana herentzia.

Berbaldi bakoitzaren neurria bederatziko handia da. Bederatzi errima ditu. Doinua tradizionala da baina ez da oso ohikoa, bere zailtasuna dela eta. Doinua mantsoa eta bukaera solemnekoa da.

Hiru bertso hauetan zehar, ez da herriaren existentziari buruzko konfirmaziorik egiten. Gaiak planteatzen duen “Aturritik Ebrora” hori errepikatu egiten du, soilik. Ez dio izenik jartzen azkenera arte: “nik Euskadi bat...” dio. Erdi paradoxa da ez duelako Euskal Herria hitza erabiltzen. Euskadi gehiago da garai batekoek erabiltzen zutena eta dutena, eta Sabino Aranak sortutako Euzkadi gertuago

dagoena. Gaur egun PNVec darabilte gehienbat. Gaiak, nolabait esatearren, Belodromoaren sinboloaren bitartez herriaren existentzia hori baieztatzea eskatzen bazuen ere, berak, bertsolariak, ez dio Belodromoari erreferentziarik egiten. Unea hartzen du erreferentzia bezala:

- Behingoagatik lortu nahi nuke jendearen jaramona!
- Hemen oihu bat egin nahi nuke esperantza gorazarrez.

Diskurtsoa egoera ezkorra planteatzetik hasten du. Erreten sakona dagoela aipatzen du gaiak dioen bezala Aturritik Ebrora bitartean. Horren jarraian “nere aurretik aita nuen ta aitan aurretik aitona...” kantatzen du. Esaldi honen atzean dagoena eta hango jendeak sentitu zezakeena konplexua da. Ez da betelan edo edertzeko bakarrik eginda dagoen esaldia. Jendearen imaginario kolektiboari zuzenean eragiten dion esaldia, baizik. Zer dago esaldi honen atzean? Herriak historian atzera egiten du. Gaiak, berak, planteatzen zuen modura (herriaren existentzia, urte asko daramatzazu zuk nahi baino tristura gehiago ikusiz, zure ondorengoentzat beste zerbait nahi zenuke), hiru aspektu hauek ukitzen ditu esaldi honek. Bere aita eta aitona diskurtsoaren barruan jarrita, gaiak dioen herri horren existentziaren ebidentzia da. Tristura aspaldikoa da eta bere aurrekoak gogoraraziz bere ondorengoei utzi beharra transmititu beharra du. Aita eta aitona-aren aipamenaren aurretik “egin baitegu erreten sakon-sakona” aipatzen du. Horregatik, denak gara errudunak. Erreten sakonaren errudun aurreko generazioak ere egiten ditu. Odolaren bidezko herriaren pertenenzia ere bada. Horrek esan nahi duena da, bera herri horren partaide dela eta herriari dagozkion gertaera historiko guztiak bere bizkarrean daudela. Nabaria bada ere, bera ez dela inmigrante familia batekoa ere ekartzen du gogora. Horrela badela nor herrian iritzia emateko eta herriaren etorkizunean esku-hartzeko ere interpreta daiteke sakonean.

Diskurtsoa bi arlotan zehaztu du:

1. Ikusten duen tristura (iragana). Lehendabiziko bi berbalditan garatzen du gehienbat:

- “Aturritikan Ebro tartean gauza onik ezin soma”
- “Erreten sakon-sakona”
- “Ez degu lortu, baina, haurrentzat desio dut zoriona”
- “Baina zergatik gabiltza denok aurpegi ilun samarrez?”

2. Bere ondorengoentzat nahi duena. Utzi nahi duena.

Lehenengo berbaldian:

- “Herri aske bat utzi nahi nuke ta herrian aske gizona”

Hirugarren berbaldian:

- “Bizi dadila gure herri hau, bizi bedi iritzia!”
- “Askatasuna izan dedila bake bidez iritsia!”
- “Maiz helburuak aipatu arren, bideak du garrantzia;”
- “Nik Euskadi bat amestu nahi dut inortxok ez irentsia;”

Mezu itxaropentsuak:

- "Ilusioa behintzat badegu, horretan gaude indarrez."
- "Etorkizuna hobe delako egingo nuke nik trabes:"
- "Gure helburu ta amets guztiak kunplitu baietz!"
- "Zenbat gogo ta antsia!"

Lehenengo berbaldiaren mezurik indartsuena "herri aske bat utzi nahi nuke ta herrian aske gizona" da. Hori da berak adierazi nahi duena eta bere nahiaren muina. Esaldi horren aurretik, estrukturari dagokionez, bi esaldi motz doaz. Bertsolariak bi esaldi motz horietan Aturritik Ebrora dagoen errealitate indartsuenaren berri dakar. Politikak markatzen dituen bi mutur baina errealitate bakarra. Hain zuzen ere, borroka armatuak eragindako bi ondorio: Eskoltekin dabilzan politikoak eta kartzeletan, dispersio politika baten ondoren, bizi diren militanteak. Bertsolariak bi errealitate horien berri emateko honoko hau adierazi zuen:

"Kartzeletako lau horma, eskoltak hara ta hona...". Bi esaldi hauetan gizartean bizi diren bi egoera bortitz eta sufrimenduzko ekartzen ditu gogora. Bi drama ezberdinen existentzia. Ez dio preferentziarik inori ematen. Ez du bat bestearen gainetik jartzen. Bi esaldiotako hitzik mamitsuenak hauek dira:

Kartzela: Estatuaren errepresio aparatua da diskurtso aurkakoenean. Estatu bere osotasunean sinbolizatzen du eta jendearen eta herriaren askatasun eza ekartzen du gizarteko sektore abertzalean. Dispersioa da kartzelarekin doan beste esanahi bat. Estatuaren geografia osoan zehar gauzatzen dena. Familiakoek jasaten dituzten urrutiramenduen ondorioekin. Kartzela hitzaren orde, erabili zezakeen "eskubiderik eza", "askatasunik ez", "askatasun egarria", "dispersioa", "hildakoak ezin ehortzi", "erailketa sospetxosoak", "Guardia zibilak", "GAL", "Torturak"...

Eskoltak: ETAren borroka armatuaren ondorio zuzena da eskoltena. Konstituzional zale diren politikoek erabiltzen dituzte, ETAren mehatxuaren ondorio zuzen bezala. Belodromoari abestu arren, herriaren (Euskal Herriaren) sinbolo eta ia erabat abertzalea, ez du beste aldea (konstituzional zalea) ahazten. Zinegotziek mehatxuen ondorioz eskoltak daramatzate eta konstituzional zaleen mundua sinbolizatzeke eskolta hitza erabiltzen du. Eskolta hitzak mundu hori osoki hartzen du. Hitz hau eta ez beste bat erabiltzeko ere arrazoiak badira. Belodromoko entzuleentzako ez da hitz oso fuertea baina bai gutxi erabilia bertsolaritzan. Horrez gain, inpaktu txiki bat ere izan zuen Egañak bere diskurtsoan erabili izana. Bestalde, mundu hori guztia beste hitz batzuekin ere sinboliza zitezkeen: "odola kaleetan", "bonba kotxeak", "lepoan tiroak (tiro en la nuca)", "extorsioa", "mehatxuak"... "ETA" ere esan zezakeen. Eskolta hitza abertzaleentzako molesto samarra da eta abertzaleak erasaten ditu, neurri batean. Eskoltak zentzu peioratiboa du egunerokotasunean ere: maromoak.

Ondoren, aurrez aipatu bezala diskurtso guztiaren gunea abestu zuen: "Herri aske bat utzi nahi nuke ta herrian aske gizona". Bertsolaria definitu egiten da: Independentzia nahi luke. Baina ez du hitz hori erabiltzen. Independentzia hitza Ezker Abertzalearen diskurtsoan gehiago erabilia delako, ziur aski. Nazionalis-

motik harago doa. Herriaren kontzeptua dakar lehenengo planoan. Ez du estatu hitzik aipatzen. Bestalde, “herrian aske gizona” dionean kontzeptu filosofiko bati dagokio. Bere eginez, eta era berean, han zeuden guztien diskurtsoaren parte eginez, hain zuzen ere, konstituzional zaleek erabili ohi dutena libertateen eza adierazteko. Horregatik,aldi berean askatasun indibidualak errebendikatzen ditu, eskubide kolektiboekin batera. Eta zintzilik dagoen eztabaida itxiz: Eskubide indibiduala Eskubide kolektiboen aurka.

Neurri berean borroka armatua darabiltenei eskubide indibidualen errebindikazioa egiten die. Gizonak herrian aske behar duela izan esanaz.

Bere posizioa definitu badu ere, mundu ez abertzalea ere kontutan hartzen du bere diskurtsoan zehar. Konstituzional zaleen munduari errespetuz egindakoa da: “Badakit ondo asko gaudela pentsakera desberdinez”. Esplizituki onartu egiten du pentsaera ezberdina.

Azken lerrokadan ere lehenengoan egin duen bere diskurtsoaren sintesia egiten du, beste hitz batzuekin. Kontzeptuak garbi adierazten ditu lan osoan: “Askatasuna izan dedila bake bidez iritsia!”. Ez du bakea helburu, bidea, baizik. Horren gainetik jarri bere nahia izango litzatekeen askatasuna ere. Bidea, bera, helburu eginez. Hori da bertsolariak jartzen duen baldintza, eskaria eta politikarako filosofia.

Askatasun irrintzia egiteko desioan dagoela dio. Irrintzia hitza gure tradizioan dago txertatua. Izanarekin lotzen gaituena. Euskaldunen oihu indigenatzat hartua izan dena. Baina hori gauzatu dadin bakearen bidez lortutako askatasuna du baldintza.

Abertzaleek historian zehar izandako fustrazioa azaltzeko, berriz ere, estruktura motza darabil: “Zenbat gogo ta antsia / eta ate bat itxia”. Ate itxiaren metaforaren bidez, iragana eta orainaren arteko lotura sortu du. Atea ireki edo bota egin liteke. Atea irekitzea bakearen bidea da. Atea botatzea borroka armatuarena, berriz.

Igor Elortza

Gure lurrean hedatua da bildurra ta gorrotoa, ilusioa ta gero ere dator belarrondokoa. Herria dugu jokoa, geu al gera oztopoa? Baina herri hau beti izan da zintzoa ta berbakoa aurki dezagun gakoa behar den bezelakoa hurrengoeri ez emateko lehengoeri jasotakoa. (bis)

Elkarrizketari zer dela eta horrenbeste erreparo? Gero etxe ta tabernan zehar badabil mila barbaro! Sufrimenduan zeharo bizi izan gara luzaro, baina aurretik dugu oraindik egun bat baino gehiago; berandu baino lehenago, joan gaitezen asago; gure herriak duen onena oraindik gordeta dago. (bis)

Belodromoan bizi-bizirik herri baten sentimena. Ez dugu behar geu izateko beste inoren baimena. Oraina eta lehena, gero bihur litekeena. Mila arazo dauzkagu baina geu ez al gara problema? Izango al dugu ahalmena ta beharrezko den dena beste noranahi eramateko hemen batu gaituena! (bis)

Serio hartzen du gaia bertsolariak. Serio hasten da kantari bertsolaria. Doinua, berriz, Manu Chaoren kanta ezagun baten moldaketa da: “Me llaman el desaparecido”. Estruktura:

10/8; 10/8; 8; 8; 10/8; 8; 8; 10/8

Estruktura berria da bertso doinutegian. Berak final aurrekoetan lehenengo aldiz erabilia. Gehienbat, gazte jendeari zaio ezaguna doinua. Nahiz eta, agian, zehazki jakin ez, Manu Chaoren kanta baten bertsio bat dela. Estruktura honen ezaugarriak nagusienak hauek dira:

- 8 puntu edo errimakoa dela. Zortzian bukatzen denean errimatua.
- Estua. Errimatik errimara silaba gutxi, beraz, txukun egiteko teknika handia beharrezkoa da.

“Gure lurtean” esanez hasi zuen bere diskurtsoa Igor Elortza bertsolariak. Alde batetik, “gure” esanda ondoren datorren izena (kasu honetan lurra) Euskal komunitatearena dela definitzen du: han bilduta zeudenena. Entzulegoa euskalduna eta gehien batean abertzalea da. Bestalde, “lurtean” esaten duenean Euskal lurrari ari zaio. Euskaldunen lurrari. Ez bakarrik herriari edo populazioari. Esan zezakeen:

- Euskal herrian hedatua da / beldurra ta gorrotoa
- Gure herrian...

Baina “gure lurtean” darabil. Lurrak euskal abertzaletasunean badu konnotazioarik eta garrantzirik. Alde horretatik indigenek duten lurrarekiko atxikimendua sentimen hori erabili zuen. Euskal lurra Euskaldunen ahaideen lurra da. Neolitikotik gaur egunera arte luzatzen dena. Lurrari lotutako identitatea da euskaldunena. Iparragirre dixit: “lur maite hortan nere hezurak uztera”. Ama lurraren erreferentzia zabala da euskal abertzaleen ideario politiko identitarioan. Gainera, euskal lurra euskaldunen lurra da. Ez etorkinena.

Aturritik Ebrora dagoen egoeraren deskripzioa dator jarraian: “beldurra ta gorrotoa”, “ilusioa ta gero ere dator belarrondokoa”.

Gaiak dio: “Zuk nahi baino tristura gehiago ikusiz”. Igor Elortzak gaiaren zati hori birdefinitu egiten du: “beldurra ta gorrota”. Alegia, tristura horren arrazoia beldurra eta gorrotoa dira. “ilusioa ta gero ere dator belarrondokoa”. Herriaren gertakari batetik ari da, nire ustez. Lizarra Garazi garaian sortu zen ilusioari buruz, hain zuzen ere. Ondoren, prozesu guztia pikutara joan zena, belarrondokotzat definitzen du.

Herria dugu jokoa,
Geu al gera oztopoa?
Baina herria hau beti izan da
zintzoa ta berbakoa

Jokatzen ari garena auzi guzti honetan herria da. Ez pertsonak, ez ideia guztiak baizik eta herriaren ideia. Guztiz esapide abertzalea da. Herria da denaren gainetik dagoena. Herri izaeraren sakralizazio horren gainetik ez dago ezer. Eta horren azpian dago gu kolektiboa ere: “Geu al gera oztopoa” gu kolektiboaren gainetik dago herria. Azkenik, gu kolektiboa eta herria bera berdindu egiten ditu: “Baina herria hau beti izan da / zintzoa ta berbakoa”. Gu kolektiboaren edo euskaldunek hitzari ematen dioten garrantzia herriari jartzen dio: Abertzaleen Ideal irudikatu gorenari.

aurki dezagun gakoa
behar den bezelakoa
hurrengoeri ez emateko
lehengoei jasotakoa. (bis)

Gakoa aurkitzea soluzioa aurkitzeari deitzen dio, irtenbideari. Herriaren arazo politikoaren irtenbideari. Ideia hori, gainera, indartu egiten du “behar den bezelakoa”. Erdibideko irtenbiderik onartuko ez balu bezala: behin betiko soluzio, alegia.

Irtenbidea aurkitu ezean gaiak zioen “zuk nahi baino tristura gehiago” hori ez litzateke amaituko. Hain zuzen ere, aurreko generazioak transmititutakoa.

Elkarrizketari zer dela eta
horrenbeste erreparo?

Elkarrizketa ukatzen dutenak arazo politikoa bat dagoela ukatzen dutenak dira. Beraz, konstituzionalistei zuzendua dago. Zergatik oztopoa elkarrizketari?

Bigarren puntuan eguneroko bizitzan gertatzen den egoerari erreparatzen dio: “Gero etxe ta tabernan zehar badabil mila barbaro!”. Beraz, politikoek egiten ez dutena herritarrek egiten omen dute. Eguneroko bizitzan, eta zehazkiago familia artean hitz egiten dena ez da islatzen espazio publikoko politikan. Espazio pribatuan era batera dira gauzak eta espazio publikoan beste era batetara. Beraz, espazio publikoaren muga agerian geratzen da. Ikusi beharko litzateke nork kontrolatzen dituen espazio publiko ezberdinak. Eta espazio publiko ezberdinen alderak. Espazio publikoko botere bakoitzak bere erara antolatzen du mezua.

Sufrimenduan zeharo
bizi izan gara luzaro.

Gaiak zioena beste era batetara formulatzen du. “Zuk nahi baino sufrimendu gehiago ikusiz” hori indartu asmoz eta egoera birkokatuz.

Ondoren, esperantzarako ate bat irekitzen du:

baina aurretik dugu oraindik egun bat baino gehiago;
berandu baino lehenago,
joan gaitezen asago;
gure herriak duen onena oraindik gordeta dago. (bis)

Esperantzari apelazio epikoa dario mezu irmo eta trinkoan. Bere ondorengo-entzat beste zerbaite nahi izatean ilusioa soberan ez duen entzulegoari baikortasun mezu garbi bat ematen dio. Zerbaitegatik ez du une horretan abertzalegoak baikortasun hori. Hain zuzen ere, Lizarrako prozesuaren porrotaren ondoren abertzaleen animoak ez baitira gorengo mailan.

Belodromoan bizi-bizirik herri honen sentimena.

“Aturritik Ebrora herri bat badela belodromoa izan liteke lekuko” zioen gaiak. Gaiaren beste formulazio bat egiten du bertsolariak. Baina herriaren existentzia baieztatu egiten du, gainera, bizi bizirik dagoen herria islatzen du belodromoak. Herriaren apelazio hutsari sentimena hitzarekin herriari konnotazioa epikoagoa egiten dio.

Ez dugu behar geu izateko beste inoren baimena.

Elortzak konfirmatzen duen herri horren arazoa beste norbaiten ukaziotik dator. Horregatik, gu kolektiboaren indartzeaz gain, gu kolektiboaren indarra, erresistentzia eta desobedientziaren hautua egiten du. Zer da gu izatea? Libre izatea, soberano izatea.

Oraina eta lehena,
Gero bihur litekeena

Hitz joko hutsetik haratago, herri kontzientziaren barruan iraganaren oinarritik sortutako gu identitarioa dago. Oraina eta lehena bat bera da herri kontzientzia dutenengan, abertzaleengan. “Zure ondorengoentzat beste zerbaite nahi zenuke” zioen gaiak. Etorkizuna, edo “gero bihur litekeena” oraina eta lehenaren etenik gabeko soka da.

Mila arazo dauzkagu baina Geu ez al gara problema?

Abertzaleen batasunari buruz ari da. Herriak mila arazo ditu. Arazo horiek arazo politikoak dira. Bi estatuen barruan kokaturik egotea, estatuen barruan autonomia ezberdinetan banaturik egotea... Baina, finean, galdera erretoriko bat planteatzen du kanpoko “arazoak” gogoratu ostean. Alegia, Geu ez al gara problema?” Geu kolektibo hori, lehen aipatu bezala, abertzaleen komunitatea da. Herri bat badela pentsatzen duen oro, hain zuzen ere.

Izango al dugu ahalmena
ta beharrezko den dena
beste noranahi eramateko
hemen batu gaituena! (bis)

Gaiak zioenaren harian: “Belodromoa izan liteke testigu” batasun nazional ikusten du bertsolariak belodromoaren baitan. Eta, zerk batu du belodromoa? Edo zehatzago, zerk batu du abertzaleen espektrua osoa? Belodromoan sigla edo alderdi borrokarik ez dago. Ez dago mutur batek besteari egotzitako ezer. Ez EAJren aurka eta ezta ETAren eta Batasunaren kontrako deus ere. Beraz, repro-

txerik gabe, batasunaren abertzaleen batasunaren metafora bihurtzen da belodromoa. Igor Elortzak denak batu dituen hori dela bidea aldarrikatzen du. Eta horretarako, apelazio eszeptiko eta, era berean, itxaropentsua egiten du aurrera bidean balio izateko.

Maialen Lujanbio

Konponbidea duena al da gure herriko kasoa?
Handik atake pozoitsua ta bestetikan eraso.
Barnean ere pozoia sobran, ta hori da arazoa,
herria hola ezin liteke egon goruntza jasoa.
Bertsolari lez eman nuen nik nere bizitza osoa;
erretiratu nintzen ta orain ikusleen aulkitik soa.
Aturritikan Ebro bitarte oso luze da pausoa,
tarte dago Belodromoa txaloaren itsasoa.

Lehen esaten zen “zer eingo degu gure hizkuntza hiltzean?”, baina hori ere jasotzen gabiltz orain hitzean hitzean.
Bertsolaritza ere ez dago hain egoera hitzean, ez dago behintzat garai bateko kinka larriko trantzean.
Nere alabai esaten diot zaharrek neri antzean, arreta jarri dezala ongi Belodromora sartzean, begjratua luza dezala jarriz han goiko ertzean, ta esperantza dasta dezala zuen txalo bakoitzean.

Gaur da finala, zabal begiak ta ikustazu alaba, lehengo egoera latza orain da zorionaren balada.
Begira zenbat gazte datorren gaur berso saioetara; denak elkarren lagun gera gaur, batera herri bat gara.
Mikrofonoai begira, hara, hamar mila begirada; isiltasuna eta ondoren zuen txalo zaparrada, zorionaren irrifarrak ta emozioan dardara...
Alaba, hementxe dago herri bat ikusi nahi dunik bada!

Maialen Lujanbiok diskurtsoa antolatu eta egiteko oso modu ezberdina erabili zuen besteenarekin alderatuta. Kontenido politiko askoz gutxiagoko bertsoak osatuz. Forma aldetik, beraz, ezberdina.

Gaiaren planteamentu ezberdina: “Aturritik Ebrora herri bat badela Belodromoa izan liteke lekuko. Urte asko daramatzazu zuk nahi baino tristura gehiago ikusiz. Zure ondorengoentzat beste zerbait nahi zenuke.” Belodromoaren sinbologia aintzat hartzen du. Hori hartzen du bere diskurtsoaren ardatz. Bestalde, tristuraren erreferentzia hizkuntzarekin lotzen du eta metaforaz betetako aipamenak egiten ditu. Etorkizunerako eskaria ere, era berritzaile batean egiten du. Bere burua etorkizunean kokatzen du. Bera entzule artean eta bere alaba oholtza gainean kantari.

Hasiera hasieratik “gure herria” deitzen dio Aturritik Ebrora artean dagoenari.

– Konponbidea duena al da gure herriko kasoa?
Handik atake pozoitsua ta bestetikan eraso.
Barnean ere pozoia sobran, ta hori da arazoa,
herria hola ezin liteke egon goruntza jasoa.

Galdera batekin hasten baldin badu ere bere jarduna, diagnostiko zehatz bat ematen du: kanpotik zein barrutik jasotzen duen eraso. Baina eraso hori nork jasotzen du? Eskal komunitateaz ari da edo euskal Herriko gizarteaz? Herria goruntza jasoa ikusi nahi du. Euskal komunitatearen herria? Euskal Herriko abertzaleen proiektua?

Erasotzaileak eta erasotuak. Belodromoko imaginarioan nortzuk dira erasotzaileak eta nortzuk erasotuak. Kanpokoari “eraso” eta “atake pozoitsua” deitzen die. Barnekoari “pozoia sobran” deitzen dio. Beraz, kanpoko erasoak bortitzagotzat jotzen du, barrukoa baino. Kanpoko erasoak euskal gizarte osoarentzat al dira eraso? Konstituzionalzaleentzat erasorik ba al dago kanpotik? Ziurrenik ez. Beraz, euskal komunitatea hartzen du kontutan bertsolariak. Bestalde barruko edo Aturritik Ebroa dagoen herri horren “arazoa” “pozoia sobran” dagoela esaten du. Nire ustez, borroka armatuari buruz ari da. Esanguratsua da “pozoia” hitza erabili izana eta ez eraso edo atake. Xamurragotzat edo bigarren mailako arazotzat du barne “pozoia” hau. Pozoiaren metafora esanguratsua da, bestalde. Bat-batean erlazionatzen diren irudiak, pozoiarekin, sugea eta mingaineko erasoak dira, nire ustez. ETArek anagraman aizkora eta suge bat egeri dira. Ez du derrigorrean parekotasun hori iradoki beharrik, metafora horrek, baina, antzekotasun bat badute. Kanpoko “atake pozoitsua” hizkerarekin, destainarekin erlazionatzen da.

– Bertsolari lez eman nuen nik nere bizitza osoa;
erretiratu nintzen ta orain ikusleen aulkitik soa.
Aturritikan Ebro bitarte oso luze da pausoa,
tartearen dago Belodromoa txaloaren itsasoa.

Belodromoa katramilatua den zerbaiten eszepzio bezala azaltzen du. Aturritik Ebro bitartekoa luzea den pausoa bezala azaltzen du. Lehen herri definitu duen hori “luze” dela irizten dio. Konplikazio guztia hitz neutro batekin jaxten du. Baina herriaren aniztasuna, historian zeharreko gertakari ugariak daude “luze” horretan. Belodromoa “txaloaren itsasoa” bada, aldegia, batasunaren sinbolo, herri baten ispilu, liskarrik ezaren bizipena... Egunerokoa askoz gogorragoa da eta “txaloaren itsasotik urrun” dagoena da.

– Lehen esaten zen “zer eingo degu gure hizkuntza hiltzean?”
baina hori ere jasotzen gabiltz orain hitzean hitzean.
Bertsolaritza ere ez dago hain egoera hitsean,
ez dago behintzat garai bateko kinka larriko trantzean.

Urteetan aurrera kokatzen du kantatzeko tokia. Ikuspegi baikor bat hartzen du. Bera gazte zeneko preokupazioa (une horretako orainaldia), hizkuntzaren egoera, hobeto ikusten du etorkizunean. Baina, baikortasuna oso hitz neketsu edo sufrikario azaltzen dutenekin kontaktatzen du: “jaso”, “hits”... eta “hitzean hitzean” esanda, pixkanakako lan neketsuaren gogortasuna azpimarratzen du.

– Nere alabai esaten diot zaharrek neri antzean,
arreta jarri dezala ongi Belodromora sartzean,
begiratu luza dezala jarriz han goiko ertzean,
ta esperantza dasta dezala zuen txalo bakoitzean.

Belodromaren handitasunaz dihardu. Herriaren egoera islatzea nahiko lukeen belodromoa. Abertzaleen mundu imaginarioan bizirik dagoen sentsazio bat da hori. Komunitate konpakto baten amets. Komunitaten horren indar amaigabearen sinismena. Belodromoko giro beroa eguneroko errealitate bihurtzeko nahia eta beharra: hizkuntza eta kulturaren mesedetan.

Gaur da finala, zabal begiak ta ikustazu alaba,
lehenago egoera latza orain da zorionaren balada.
Begira zenbat gazte datorren gaur berso saioetara;
denak elkarren lagun gera gaur, batera herri bat gara.
Mikrofonoai begira, hara, hamar mila begirada;
isiltasuna eta ondoren zuen txalo zaparrada,
zorionaren irrifarrak ta emozioan dardara...
Alaba, hementxe dago herri bat ikusi nahi dunik bada!

Azken bertsoan herri izatea azpimarratzen du. “Batera herri bat gara” esaten duenean nortzuk egon behar dute batera? Abertzaleez ari da. Abertzaleak batera egonda, alde konstituzional zalea ez badago ere, herriaren muina, bertan, dagoenaren sinesmena dago. Hizkuntza eta euskal kulturaren gordailu bertan dagoenaren ziurtasun osoa. Abertzaleen batasuna, Lizarra-Garaziko akordioa, abertzaleen imaginarioan egoerarik desiratuen da. Askatasuna nahi badute ere, batasun bideak asetzen ditu.

Aldarrikapena bat egiten du bertsoaren amaieran: “hementxe dago herri bat ikusi nahi dunik bada”. Abertzaleen batasunaren metafora froga gisa erabiltzen du abertzaleen aldarrikapenerako. Nori zuzendua dago aldarrikapen hori? Bertakoak ados daude herri bat izatearen ikuspegiarekin. Nork ikusi behar du herri hori existitzen dela? Mezu hori eta aldarrikapen hori zalantzan jartzen, edo zuzenago esanda, herri baten existentzia ukatzen dutenentzat da.

Belodromoan ez dagoen norbait kantatzen badio, “gu” hori osatzen ez duen norbaiti kantatzen badio “besteen” komunitatearen existentzia eta indarra azaltzen ditu.

Unai Iturriaga

Orain arteko bizitza
izan da nahiko tristea,
ta noizbait iristen bada
noanaren albistea,
nahi nuke orain arteko
kate lodia haustea,
gozoa izan dadila
gure etxeko gerizpea,
lagun bihurtu daitezela
bai bata ta bai bestea,
errespetuan lehenbailehen
ta guztiok sinestea.
Nik gure ondorengoiei
gura nieke uztea
gure duintasuna eta
gure Euskal Herri askea.

Ohikoak izan ditugu
gure herrian liskarrak,
nahiz ta batzutan estali
Belodromoko aparrak.
Badakit gu ez garela
sufritu dugun bakarrik,
aurrez aurre jarri gaitu
aurrera egin beharrak.
Nahiko nuke bukatzea
behingo baten garai txarrak,
kartzela eta torturen
testimonio zatarrak,
etxera etor daitezela
preso berri eta zaharrak,
kartzelan bakarrik utziz
joandako egunen marrak.

Denetik izan daiteke
komedia edo drama,
euskaldunok izan dugu
borrokalarien fama.
Hitza bihurtu liteke
egunen batean arma,
alaba bihurtu leike
noizbait nere iloben ama.
Egindakoa eginda
herria ezin da bana;
orain artean eraman
badugu guk gure zama,
ez pentsa gero horrela
bukatuko danik dana;
jakin zazue: oraintxe
hasten da egizko lana.

Iturriagaren lana aztertu aurretik kontutan hartu behar da, berak, politikarekin izan duen harremana. Bere iritzia eman zalea izan da, batetik, eta bestetik, Ezker Abertzalearekin lotura handia izan du. Espetxean daudenak txapelketako ia

saio guztietan izan ditu aipagai agurren garain. Kasu honetan ere, bere izatetik kantatu behar duenez, bere iritzia ematen du. Aldetik horretatik uste dut, bere ohiko diskurtsoan aldaketa batzuk edo aportazio batzuk egiten ditu. Esparru zabalago bat hartzen duen diskurtsoa egiten du.

Berak ikusten duen egoeraren berri ematen digu:

Orain arteko bizitza izan da nahiko tristea,
Ohikoak izan ditugu gure herrian liskarrak,
nahiz ta batzutan estali Belodromoko aparrak.

“Gure herria” deitzen dio Aturritik Ebrora dagoenari eta aurrerago, berriz, Euskal Herria. Liskarrak aipatzen dituenean, Euskal Herrian egon diren liskar guztietaz ari da: abertzaleen artekoa, abertzale eta konstituzionalzaleen artekoa, alegia, estatuak, autonomismoak eta ETAk sortutakoak.

Orainari buruzko diskurtsoa zabalagoa da. Gizartearen ikuspegi orokorra hartzen du kontutan, eta ez bakarrik abertzaleen arazoa. Alde horretatik, bere inplikazio politikoa hain markatua izanda bere bertsolari ibilbide guztian, aldaketa bat ematen dela esango nukeela.

– Badakit gu ez garela sufritu dugun bakarrak,
aurrez aurre jarri gaitu aurrera egin beharrak.

Aitortza bat egiten du. Halere, bera poszionatua dago, lehenengo pertsonatik ari da. Ez du esaten: badakit bi aldeek sufritu dugula. Bere sufrimentua azaldu arren besteenari ematen dio aitortza moduko hori. Besteen sufrimentua errekonozitzen du. Eta orduan, errekonozitzen badu, aurretik inoiz edo normalean, ez duela errekonozitu esan nahi du. Tonu kontziliatzailea da erabat. Bere posizioa ez da aldatu baina berea ikusteaz gain, besteena ere ikusi eta aitortzen du.

Etorkizunari dagokionez:

ta noizbait iristen bada noanaren albistea,
nahi nuke orain arteko kate lodia haustea,
gozoa izan dadila gure etxeko gerizpea,
lagun bihurtu daitezela bai bata ta bai bestea,
errespetuan lehenbailehen ta guztiok sinestea.
Nik gure ondorengoei gura nieke uztea
gure duintasuna eta gure Euskal Herri askea.

Bertso honetan etorkizunerako nahi duena, finean, duintasuna eta Euskal Herria askea da. Duintasuna etorkizunerako uzteak asko esan nahi du. Zer da duintasuna izatea? Eta zer da duintasuna ez izatea? Nik uste dut, herri bezala, duintasuna izatea esan nahi duela. Oraingo egoeran duintasunik badagoenentz ez du deus esaten. Alderdi Jeltzalearen politikaren aurkako mezu bat ere izan daiteke, baina ez du espezifikatzen. Ezker Abertzaletik, garai batean behintzat, errepikatu izan da PNV-ren duintasun eskasia. Bestetik, Ezker Abertzalearen diskurtsoan errepikatua izan den termino bat izan da. Duintasunaren gorazarrea behin baino gehiagotan egin izan da.

Lagun bihurtzea nahi luke bata eta bestea. Zeintzuk dira “bata ta bestea”? Abertzaleen bi poloetaz ari da edo gizartearen bi poloetaz? Ziur aski lehenago ere bere diskurtsora ekarri dituenek gero (“badakit gu ez gerala sufritu dugun bakarrak”) abertzale eta konstituzionalzaleen arteko laguntasunaz ari da. Oso diskurtso hiritarra edo zibikoa, beraz. Errespetoan bizitzea eskatzen du, gainera.

– Nahiko nuke bukatzea behingo baten garai txarrak,
kartzela eta torturen testimonio zatarrak,
etxera etor daitezela preso berri eta zaharrak,
kartzelan bakarrik utziz joandako egunen marrak.

Besteen egoera kontutan hartzetik bere inguruaren edo bera identifikatua sentitzen denaren azalpena ematen du. Kartzela egoera gainditu egin nahi du, garai txarren barruan sartzen duena baina baita torturak ere. Kartzelaratzea legala bada ere, kartzelak sentimentu handia du abertzaleengan. Urte luzeak izateaz gain sakabanaketaren politika ere berekin duelako. Gainera, entzulegoen artean kartzelan egondakoak bat baino gehiago izateaz gain, ia denek izango zuten kartzelan egon edo dagoen bat ezagun. Torturaren aipamena, berriz, ilegala izateaz gain, giza eskubideen aurkako praktika bat da. Konstituzionalistek ez dute praktika hori dagoenik onartzen. Tortura salaketak sistematikoki egiten direla diote. Abertzaleen artean, berriz, konbikzio, sinismen eta bitzako edo kontakizunen frogaz bizi dago. Abertzaleen mundu sinbolikoan torturaren presentziak eta erabilerrak indar handia dauka. Iturriagak, gainera, ez du soilik esaten torturaren amaiera nahi duela, torturaren testimonio zatarrak, baizik: bitzita propioa ematen die tortura horiei, sinismen erreala.

Presoen etxeratzea ere eskatzen du. 2001. urtean 600 preso inguru zeuden kartzeletan. Zehaztapen bat ere egiten du presoekin: preso berri eta zaharrak daudela gogoraraziz. Espetxeratu berriak asko daudela komunikabideetatik da ezagun. Baina preso zaharra ere diskurtsoan txertatzen dituenean, 25 urtetako historia ekartzen du. Urtez urte, bertan, daudenak bergogoraziz.

Bere diskurtsoaren aldaketaren zantzurik behimena hirugarren bertsoan ematen du.

euskaldunok izan dugu borrokalarien fama.
Hitza bihurtu liteke egunen batean arma,

Aldaketa egin du eta aldaketa eskatzen du, aldi berean. “Borrokalariaren fama” esaldia esaterakoan hirugarren pertsona erabili zezakeen, bere burua urrunduz. Baina lehenengo pertsona plurala erabiltzen du. Bera ere “borrokalari fama” horren barruan kokatuz. Borroka hitzak, kontestu horretan, borroka armatua esan nahi du. Geroago hitza arma bihurtu litekeela esaten baitu. Beraz, gaurko borroka euskaldunon arma dela esaten du. Baina biharko hitza bihurtzea nahi duela. Bestelako interpretazioa ere egin liteke. Alegia, borroka ez duela derrigorrean borroka armatua esan nahi. Baina, nire ustez, borroka armatuaren auziaz, komentiaz, dihardu eta aldaketa iradokitzen du. Ez du esaten orain artekoak ez duela ezertarako balio izan. Edo ez dala zilegia mota horretako borroka. Berak bere desio-

aren eszenarioa kokatzen du, hau da: hitza izatea arma. Hala eta guztiz ere, ez du errebindikatzen, iradoki bakarrik egiten du. Esaldiaren zentzua gogortu edo imotu zezakeen “hitza bihurtu behar da egunen batean arma” esan izan balu. Edo “hitza bihurtu bahar da bihartik aurrera arma”. Edo “hitza bakarrik bihurtu dezagun guztion arma” bezalako esaldiekin. Beraz, aldaketa bat nahi du, aldaketa iradokitzen du. Baina ez du mindu nahi borroka mota horrekin identifikatzen den inor.

alaba bihurtu leike noizbait nere iloben ama.

Egañak erabili zuen modutsuko esaldia da: “nire aurretik aita nuen ta aitan aurretik aitona”. Baina Egañak iraganera salto egiten badu Iturriagak etorkizunera egiten du. Egoeraren larria adierazten du. Geroak zenbat arduratzen duen. Aturritik Ebrora dagoena ez baita Iturriagaren ustez, une horretako kezka bakarrik. Baizik eta bere alabaren iloba aipatzen duenean ehun urtez egiten du aurrera, gutxi gora behera. Beraz, larria den eta hobetu behar den arazoaz ari da.

– Egindakoa eginda herria ezin da bana;

Batasuna eskatzen du orain arteko egoerak nahiz eta horretara eraman lezakeen. Esaldi honi justifikazio eta errekontziliazio kutsua dario. Kanpoko erasoeta baino, herriaren barruko tira-biraz dihardu. Zer ari da estrategia instituzionala bultzatu dutenez? Edo borroka armatuaren ekintzez? Nik ez dut uste PNV-k eraman duen estrategia “zuzena edo okerra” ari denik justifikatzen.

orain artean eraman badugu guk gure zama,
ez pentsa gero horrela bukatuko danik dana;
jakin zazue: oraintxe hasten da egizko lana.

Zama “guk” eramate horrekin zer esan nahi du? Nire ustez, “guk” hori Ezker Abertzalea da eta orain, abertzale den guztiari eskatzen dio zama hori eramatea. Lizarra Garaziko garaiak utzitako ondorioz nabarmenetakoa da: Ezker Abertzalearen imaginarioan abertzaleen batasunaren beharra eta nahia.

Jesus Mari Irazu

Aturritikan Ebrora
mendetako ibilera,
joan daneko aspaldian
ez ote doa gainbehera?
Buruak ez du ematen,
bihotzak berriz minbera,
bidea baidijoa hor
bakar batzun arabera;
kolpeka bakarrik goaz,
baina norantza gainera?
Irriparrerik ez dago,
sufrirentua sobera.
Herri bat omen gera bai,
baina ezin egin aurrera,
lau urtean behin bakarrik
elkartzen baldin bagera.

Ekintzarikan ez dago,
hitz politik mingainean;
geroari guk zer utzi
hor ari gera lanean.
Ezer geldituko ote
saiatzean ordainean?
Bertsoak elkartzen gaitu,
elkartzen gaitu sailean.
Herri hau Belodromoa
bere zentzu gordinean,
txirringularitza pista
hor daukagu eskinean,
Euskal Herria horixe
baidegu azken finean;
buelta ta buelta gabiltza,
baina irten ezinean.

Gerorako nahi det herri
bat ederra ta anitza,
sinbolo ez du zertan izan
betiko bertsolaritza.
Atertu behar hortako
alde bietako ekaitza,
geldi beharko hortarako
hainbeste eraso bortitza.
Zein ote irtenbidea
ta zeinek ote du giltza?
Denek berea jarri nahi,
denek daukate baldintza.
Kontua hala omen da:
erabakia ta hitza;
hau konponduta zegoen
hori bakarrik balitza!

Irazuren bertsoaldiaren muinetako bat erabiltzen duen diskurtsoa baino tonua edo gaiarekiko distantzia da. Eszeptiko eta ironiko nire ustez. Gaiarekiko nazkamen edo inpotentzia nabari zaizkio. Egoeraz irri egiteraino.

Aturri eta Ebro artean dagoenari ez dio izenik jartzen lehengo bertsoan baina herri bat dagoela onartzen du, ironikoki bada ere. Bigarren bertsoan, jardunaren arian, Euskal Herria deitzen dio gaiak aipatutako eremuari.

- Aturritikan Ebrora mendetako ibilera.
- Herri bat omen gera bai, baina ezin egin aurrera, lau urtean behin bakarrik elkartzen baldin bagera.

Herriaren existentziak mendeetako ibilera, edo mendeetako historia ematen dio. Bestalde, herriaren afirmazioa “omen gera bai” esanez egiten du. Esaldi honen atzean ez dago herri izaeraren kuestionamendurik, kritika bat baizik. Politikoen batasun ezaren kritika. Era horretako gune eta uneak nahikoak ez direla esanez. Azken finean, galdera ironiko bat dago hor: noizbehinka elkartzen den herriak egingo al du aurrera?

Etsipena egoerarekiko:

- joan daneko aspaldian ez ote doa gainbehera?
- Buruak ez du ematen, bihotzak berriz minbera.
- Iriparrerik ez dago, sufrimentua sobera.
- norantza gainera?

Oraina eta etorkizunaren arteko horretan darabilena hau da:

Oraina:

- Ekintzarikan ez dago, hitz politikak mingainean.

Aurreko bertsoaren diskurtsoari jarraiki, batasuneranzko ekintzarik eza azpimarratzen du. Nahiz eta mingainean hitz politikak izan. Kritika hau politikoei zuzendua dago, eta nik uste dut abertzale diren politiko guztieri, gainera.

- Bertsoak elkartzen gaitu, elkartzen gaitu sailean.

Bertsolaritzaren eta egun handi horren mugak zirikatzen ditu.

Etorkizuna:

- geroari guk zer utzi hor ari gera lanean.
- Ezer geldituko ote saiatzean ordainean?

Ekimenik ukatu ez arren zalantza jartzen etorkizuna: ezer geratuko al da.

Halere, ironi eta kritikaren gorena ondoren botatzen du:

- Herri hau Belodromoa bere zentzu gordinean, txirindularitza pista hor daukagu eskinean, Euskal Herria horixe baidegu azken finean; buelta ta buelta gabiltza, baina irten ezinean.

Fustrazio eta ezintasunaren metafora bihurtzen du gaien aipatzen zen “belodromoa”.

Hirugarren bertsoa ere, ironiko bukatu nahi izaten du. Aurretik, ordea, etorkizunerako nahi duena azaltzen du.

- Gerorako nahi det herri bat ederra ta anitza, sinbolo ez du zertan izan betiko bertsolaritza.

Herri anitza nahi du etorkizunerako. Anitza esaten duenean sentsibiltate guztiak onartzen dituela esateaz gain, sentsibiltate horiek, kultura, ideologia, forma horiek herriaren ezaugarri izatea nahi duela adierazten du. Ez du herri homogeneo baten aldeko apustua egiten. Konstituzionalzaleen diskurtsoan erabiltzen den hitz bat da (plural, gazteleraz). Gainera, bertsolaritza herriaren sinbolo izatea beharrezkotzat ez du jotzen. Kontutan hartu behar da bera Gipuzkoako herri txiki bateko baserri batean jai zela. Ziurrenik, euskal balore tradizionalak identitatearen oinarri direnak. Beraz, hain bereak dituen balore horiek ez ditu besterenak izatea beharrezkotzat jotzen. Bertsolaritza sinbolotzat hartzen duenean sinekdoke bat egiten du. Osoari zatiaren izenez deitu: bertsoa, trikitixa, baserria, pelota, herri kirolak... euskal kulturaren sinbolo, tradizioaren ardatzak haustearen edo muin ez izatearen ezinbestekotza adierazten du.

Bestalde, Aturritik Ebrora dagoenari herri deitzen dion momentuan Nazio batez ari da, Euskal nazioaren onarpenaz, hain zuzen ere. Beraz, ikuspegi aberzale batetik diskurtso oso irekia egiten du.

- Atertu behar hortako alde bietako ekaitza, geldi beharko hortarako hainbeste eraso bortitza.

Etorkizunean bere desio hori betetzeko baldintza bat ezartzen du. Bi aldeetako erasoak amaitzea. Politikan nork erabiltzen du era horretako diskurtsoa? Nork esaten du bi aldeetako erasoek amaitu behar dutela? Konstituzionalzaleek alde bateko erasoak bakarrik dagoela aipatzen dute. Abertzaleen artean bi aldeen erasoak onartu bai, baina PNV-k borroka armatuaren erasoak izaten du aipagai eta Ezker Abertzaleak bi estatuena. Beraz, horien erdian kokatzen den diskurtsoan kokatzen da.

hau konponduta zegoen
herri bakarrik balitza!

Jon Maia

Aturri ez da bakar-bakarrik
bide baten doan ura,
hamaika aldiz amets eginez
sartu naiz bere barrura!
Tamalgarria izan da sarri
gure herriko itxura;
aspaldian arregura
heldu da euskal mundura,
gainera hor dago muga:
Askatasuna nahi det zuentzat:
hizkuntza eta kultura;
hain zuzen ere gure herriai
lapurtu dioten hura. (bis)

Belodromoa batasuna da,
hori denontzat argi da;
hemen herri bat ikus dezaket
Lizarratik Garazira.
Gure herria ikusi nahi det
gaurko egunan neurrira,
ta ez sasitik sasira,
beti mina, tira-bira...
Ta azkenengo orrira
sartu gaitezen, gero artian
esperantzaren harira,
iraganari lotuak baina
etorkizunai begira. (bis)

Herri bat gera, Euskal Herria,
horixe bere izena;
sentimentutan beretzat daukat
sentimenturik gorena;
zin egiten det berarekiko
loturikan nagoena.
Seme-alabaren pena,
bihotzeraino zuzena,
alda dezagun ordena;
benetan diot: nik emango det
barruan dudan onena,
seme-alabek izan dezaten
guk izan ez genuena. (bis)

Maiaren jarduerak Aturritik Ebrorako, zera horren, definizioa egin du. Zer da, beraz, Aturritik Ebrora dagoena:

– Aturri ibaiari buruz esaten duena (eta suposatzen da Ebrori buruz ere beste horrenbeste esan nahi duela) ez dela “bide baten doan ura”. Alegia, esanahi sinboliko handia duen zerbait dela. Hain zuzen ere, horregatik “hamaika aldiz amets eginez sartu naiz bere barrura!”. Bere ametsen kokaleku edo mugari jartzen du. Amets hitzak pertsona batek izan dezakeen aspiraziorik gorena ordezkatzeko du. Beraz gaia bere nahi, desio edo fustrazioen arrazoi badela suposatzen da.

– “Tamalgarria izan da sarri gure herriko itxura”. Beraz, Aturri eta Ebro artean dagoen hori, gure herria da. “Gure” hori abertzaleen komunitateak osatzen du. Bertan biztanle guztiak sartzen badira ere, alde baten ikuspegia nagusitzen da: herri bat.

– “euskal mundura,”

Aturritik Ebrora euskal mundua kokatzen da, beraz. Euskal mundua ez da abertzaleen mundua. Euskeraz egiten den mundua da euskal mundua. Neurri handi batean, halere, abertzaleen mundua ere badena. Baina ez dira sinonimoak. Euskal mundu hori hobeto definitzeko ondoren zera eransteko du:

– hizkuntza eta kultura;
hain zuzen ere gure herriai
lapurtu dioten hura.

Euskal mundua, beraz, hizkuntza eta kultura dira. Herriari lapurtu dioten hura, bertsolariaren hitzetan. Lapurtu hitza erabiltzea abertzaleen diskurtsoan txertatua dagoena da. Honekin hizkuntzak jasan dituen eraso buruz ari da. Herriari kendutako zerbait. Ez herriak bere kasa emana. Honen atzean borroka guztiak sartzen dira: Gaztelak Nafarroako erresumari kenduak, XIX. Mendekaok, frankismo garaikoak... abertzaleetat beraiena den zerbait kendu diete. Jon

Maiak horren berreskuratzea eskatzen du: "Askatasuna nahi det zuentzat". Aurrean entzuten ari den Euskal Herri sinboliko horrentzat.

Bigarren go bertoan Belodromoaren esanahi sinbolikoa adierazten du eta honekin batera belodromoak sinbolizatzen duen horrentzat lukeena:

Belodromoa:

- Belodromoa batasuna da, hori denontzat argi da

Belodromoan zegoen bat egite horren ondoren batasuna aldarrikatu eta guztientzako begi bistakoa dela sententziatzen du. Denok horiek, ordea, han bildutakoak dira. Batasuna han dago baina ez handik kanpora. Une eta gune oso berezia da, beraz, bertsolarientzat eta entzulearentzat ere. Oso gutxitan errepikatzen den sentsazioa.

- hemen herri bat ikus dezaket Lizarratik Garazira.

Herriaren existentzia aldarrikatzen du. Hori nork sortzen duen ere argitzen du: Lizarra-Garazik, hain zuzen ere. Lizarra-Garaziko akordioa abertzaleen arteko akordioa izan zen EB-rekin (Ezker Batua) batera 1998an. Gainera, ETAk tregua bat eman zuen. Ondorioz, une hartan abertzaleen batasun egoera bat zegoen eta ilusioa euskal abertzaleen artean. Jon Maiak akordio hori aipatzean, nolabait ere, bergogoratzeaz gain, horrelako akordio baten beharra aldarrikatzen du. Esan zezakeen herri bat ikusten duela Aturritik Ebrora. Baina Lizarra eta Garazi aipatzean, Nafarroan eta Iparraldean kokaturik dauden bi herri eta akordioa iradokitzean batasun hori badagoela aldarrikatzen du belodromoko gizartean, nahiz eta politikoek, ETAk eta indar eragileek akordio hori bertan behera utzi.

Desioa:

- Gure herria ikusi nahi det gaurko egunan neurrira,

Etorkizunerako zer herri nahi duen adierazten du. Hain zuzen ere, egun horretan belodromoak sinbolizatzen duen herria. Kontsentsua eta batasuna oinarri dituen herria. Baina horrekin batera ez abertzaleak edo konstituzionalzaleak ahaztu egiten ditu. Ez ditu kontutan hartzen. Abertzaleen imaginarioan Euskal Herria abertzaleez osatua dago edo osatua egotea nahi da.

- ta ez sasitik sasira,
beti mina, tira-bira...

Minaren eta tira-biraren desagerpena desio du. Ez du espezifikatzen ze min. Abertzaleek onartzen dituzten minen desagerpenaz ari da, beraz. Aldea batetik, Estatuak sortzen duena eta bestetik, ETAk sortzen duena. Konstituzionalzaleek ETAk sortutako minaren desagerpenaz hitz egiten dute, soilik.

- sartu gaitezen, gero artian esperantzaren harira,
iraganari lotuak baina etorkizunai begira.

Iraganari lotuak egoteak lehenago aipatu kultura eta hizkuntzari lotuak ego-
tea esan nahi du.

Hirugarren bertsoa etorkizunari begira egiten du. Lehendabizi beretzat
Aturritik Ebrora dagoen hori zer den esaten du.

– Herri bat gera, Euskal Herria, horixe bere izena;
sentimentutan beretzat daukat sentimenturik gorena;
zin egiten det berarekiko loturikan nagoena.

Aturritik Ebrora dagoena Euskal Herria deitzen dion herri bat dagoenaren
aldarrikapena egiten du. Sentimenturik gorena suposatzen dion eta loturik dago-
en herri bat.

Seme alabak aipatuaz etorkizuna, alegia, zer nahi duen esaten du:

– Seme-alabaren pena,
bihotzeraino zuzena,
alda dezagun ordena;
benetan diot: nik emango det barruan dudan onena,
seme-alabek izan dezaten guk izan ez genuena.

Zer da beraiek izan ez dutena eta seme-alabentzat nahi duena? Zer berak
nahi duena eta aldi berean aipatu gabe uzten duena? Aipatu gabe uzten badu
entzuleek badakitelako zer nahi duen etorkizunerako.

Abertzaleen kontsentsuaren postulatuetan dira etorkizunerako eskatzen due-
na. Giza eskubide guztien errespetatzea eta autodeterminazio eskubidea.

Sustrai Colina

Urterik urte aurrera goaz,
hautsi dugu zenbait kate,
nahiz ta ondotik kritika egiten
dauden mila atorrante.
Oraindik ere bizirik gaude
ta ez zaigu inporta bate.
Batzuk nahiz dauden aparte,
segi borrokan jo ta ke! (bis)
Garenak gara, izaten segi,
izan mesede zein kalte,
orain daukagun gorroto hori
maitasun bihurtu arte. (bis)

Gure egoera nahiz ta batzutan
izan litekeen gordina,
etorkizuna begiratzea
ez ote da atsegina?
Gure barruan berpiztuz doa
borrokako dugun grina;
egin daigun ahalegina
bazterrera utziz mina. (bis)
Ta irriparra bihurtuko da
orain arteko samina,
sentimenduak gaintitzen badu
politikoen ezina. (bis)

Momentu hontan nahiz nagusi
den
malkoa eta orbaina,
gure ahalegina izan liteke
etorkizunaren ordaina.
Bizirik gaude eta aurrera
segi daigun alajaina!
Hartuko diegu gaina,
baikara herri bikaina. (bis)
Ahaztu dezagun zurikeria,
ez da hain erreza baina,
Euskal Herriak gozatu dezan
gure ondorengoek aina. (bis)

Sustrai Colina Iparraldekoa da. Frantziako estatuan kokaturik dago, beraz.
Horrek, berak badu karga sinboliko handia. Urte asko dira Iparraldeko bat Euskal
Herriko Txapelketaren finalean egon ez dena.

Esperantzaz betetako mezua txertatzen du bere diskurtsoan. Baikortasun horren nundik-norakoak ikusiko ditugu.

Hasieratik esaten du: “aurrera goaz”. Goaz esaten duenean zer esan nahi du. Gu horretan nortzuk sartzen dira? Abertzaleak dira aurrera dijoaztenak. Gu horren barruan, beraz, Euskal Herria eta abertzaleak daude. “Gu” bat dagoenean “besteak” bat ere badago. Nortzuk dira “besteak”? Nire ustez, Euskal Herritik kanpo bizi direnak, bi estatuak dira. Beraz, Euskal Herrian bizi diren baino Abertzaleak ez direnak albo batera uzten dira. Beraien existentziarena auzia ez da jorratzen. Abertzaleen imaginarioan abertzaleak gehiengoa osatzen dutela uste da eta, beraz, pauso hori emanda dagoenaren espazioan kokatzen da.

Aturri eta Ebroko lur eremuari ez dio izenik jartzen baina, abertzaletasunaren posiziotik kantatzeko ez du sarrerarik egiten. Normaltzat jotzen du abertzale izatea eta abertzale testu-ingurua izatea. Imaginario horretan kantatzen duenez ez du zedarritze beharrik ikusten Aturritik Ebrorako eremu hori. Aurrera doana, Euskal Herria da, hizkuntza, kultura... Mezu positiboa ekartzen du hasiera-hasieratik testu-inguru horretarako

– Urterik urte aurrera goaz, hautsi dugu zenbait kate,

Mezu positiboaren arrazoa zenbait kate haustearen da. Zein dira kate horiek? Lehengo pertsona plural hori nortzuk osatua da? Kateak haustea abertzaletasunaren lorpenen metafora bat da. Abertzaletasunaren lorpenen artean hizkuntzaren indartze bat, Lizarra Garaziko kontsentsua... izan litezke. Hizkuntzaren gaia, Iparraldean ez dago egoera oso ongi. Baina bera Hegoaldean ari da kantuan, Donostian. Ba al du horrek eraginik bere jardunbidean? Berak diskurtsoa osatzeko garaian? Nik uste dut baietz. Iparraldeko ikuspegidun diskurtso bat osatu zezakeen baina ez du horrelakorik egiten.

– Urterik urte aurrera goaz, hautsi dugu zenbait kate,
nahiz ta ondotik kritika egiten dauden mila atorrante.
Oraindik ere bizirik gaude ta ez zaigu inporta bate.

Aurrera joan bidean zeintzuk dira mila kritika egiten dituztenak? Kostituzionalistak? Abertzaletasun instituzionalaren ordezkariak? Ziurrenik ere, bere “gu” imaginarioa abertzaletasunaren esparru guztiak osatzen dutenez, kanpoko kritikak, konstituzionalzaleenak doti aipagai.

Baikor izatearen arrazoi bakarra oraindik bizirik egotea al da?

– Batzuk nahiz dauden aparte,
segi borrokan jo ta ke!

Zeintzuk dira aparte daudenak? Espetxeetan daudenak dira hein handi batean. Baina ihesi daudenak ere izan daitezke. Konstituzionalisten aldekoak ere badira kanpora joan direnak, baina, ez da horietaz ari. Horiek ez ditu kontutan hartzen. Izan ere, testu-inguruak ez du horretara bultzatzen. Zergatik? Euskal

Herriko txapelketa denez, izan zezaketen kabidarik. Baina erabat abertzale ingurukoa da bertsolaritzaren jarduna eta telebista ere zuzenean bazegoen ere ez da kontutan hartzen bertsolari honen diskurtsoan eta ezta besterenean ere, ia.

Borroka hitza aipatzen du. Zer esan nahi du “segi borrokan jo ta ke” esatean? Borroka hitzak bi adiera ditu. Borroka armatua batetik, eta nazio, hizkuntza, kulturaren... normalkuntza eta eskubideen aldeko jardunbidea, bestetik. Oso termino anbiguo da. Ez du zehazten. Ez du borroka motarik aipatzen, juzkatzen, hobesten edo alde batera uzten. Entzulearen belarritan ohikoa den kokapena da hori. Implizituko onartzen dira, beraz, borroka horiek. Ez da tokiz kanpo dagoen diskurtsoa. Batzuk aurka egongo dira, baina, esplizituki zehazten ez denez onartu egiten da. Eta era berean, borroka armatuaren alde daudenak ere ongi hartzen dute, implizituki borroka armatuaren aldeko bezala interpreta daitekeelako.

– Garenak gara, izaten segi, izan mesede zein kalte,

Zer gara? Euskaldunak gara. Herri bat gara. Eta izaten jarraitzeko eskatzen du. Horrek ekar lezakeen onura zein kalteren aurretik. Bestalde, “segi” hitza erabiltzen du. Gaztelertatik datorren eratorritako hitza da. Bera Iparraldekoa izan arren, gaztelaniako eratorria barneratu du. Nahiz eta Iparraldeko zenbaiterentzat arrotza izan hitza hori.

– orain daukagun gorroto hori maitasun bihurtu arte

Nork du gorrotoa? Zeinentzako? Zerekiko? Airean uzten dituen galderak dira.

Gure egoera nahiz ta batzutan izan litekeen gordina

Egoera gordinarekin hasten du bigarren ahapaldia. Berriro ere “gure” esanez. Beraz egoera gordina abertzaleena. Abertzaleek jasaten dituzten eraso ezberdinei buruz ari da: presoen egoera, sakabanaketa, hizkuntza eskubide urratuak... Alde horretatik “gure” egoera kontutan hartzen du baina ez “besteak”.

– Gure barruan berpiztuz doa borrokako dugun grina

Borrokarako grinaren justifikazioa egiten du. Nahiz eta, lehenago esan bezala, ze borroka mota ez duen espezifikatzen. Baina hala egingo zuela ez badirudi ere, bere diskurtsoak aldaketa bat ematen du. Borrokarako deiak utzi eta ahalegina mina bazterrean uzteko egin behar dela esaten du.

– etorkizuna begiratzea ez ote da atsegina?
Gure barruan berpiztuz doa borrokako dugun grina;
egin daigun ahalegina
bazterrean utziz mina. (bis)
Ta irriparra bihurtuko da orain arteko samina,
sentimentuak gainditzen badu politikoen ezina.

Hirugarren bertsoan oraina eta etorkizunaren konparaketak egiten ditu.

Orain:

- Momentu hontan nahiz nagusi den malkoa eta orbaina,
- Bizirik gaude eta
- baikara herri bikaina.

Egoeraren gordintasuna eta edertasuna uztartzen ditu: “malkoa, orbaina, bizirik, herri bikaina”. Beraz, naziotasunaren deklarazioa dago inplizituki: “baikara herri bikaina” eta bestetik bizirik egotearen arrotasuna azaltzen du. Aldi berean, ordea, “malkoa” eta “orbaina” hitza erabiltzen ditu presentearen gogortasuna deskribatzeko. Nik uste dut, hitz hauen barruan bi aldeetakoen sufrimentuaz ari dela.

Etorkizuna:

- gure ahalegina izan liteke etorkizun ordaina.
- aurrera segi daigun alajaina!
- Hartuko diegu gaina,
Ahaztu dezagun zurikeria, ez da hain erreza baina,
Euskal Herriak gozatu dezan gure ondorengoek aina.

Etorkizunaren diskurtsoaren barruan, saiatzearen eta jarraitzearen aldeko apustua egiten du egoera aldatu dedin.

Aitor Mendiluze

Hain herri haundi ta berezia
txiki geratzen dago hasia,
ta kabitzeko borroka hori
ez du berak merezia. (bis)
Maiz joera itsusia,
borroka eta auzia,
gorrotoa nagusia.
Belaunaldi hontan bukatzea da
eskatzen dedan guzia,
ondorengoek ez ikustea
geuk maizegi ikusia. (bis)

Jantzi beharko degu balorez
lehen jantzi zena odol kolorez,
nahiz eta jakin hori ez dela
hola aldatuko berez. (bis)
Ekin behar da adorez,
hobena geuretzat gordez,
borrokatzen jardun ordez,
alperrik baita askatasuna
eskatzea hitz dotorez;
geure ekintzez azal dezagun
merezi degun edo ez. (bis)

Nik pentsatzen det zer geran ari
bidea emanez beti gerrari,
nahiz eta jakin izango dela
hortatik pena ugari. (bis)
Gaur lagunduz hurkoari,
denak lasai, denak adi,
gauza ederra da hori;
ez politika, ez izaeren
bereizketan ez erori,
hau da neronek gerokoentzat
utzi nahi dudana Euskadi. (bis)

Aitor Mendiluzen bertsoetako diskurtsoa, seguruenik, konprometituenetakoa izango da. Borroka hitza hiru aldiz erabiltzen du. Gorrotoa, odola eta gerra hitza ere erabiltzen ditu.

Abertzaleen zuzendutako diskurtsoa osatzen du. Eta abertzaleen barruan, ezker abertzaleari zuzenean, gainera. Bere diskurtsoa borroka armatuaren ingurukoa da, soilik. Borroka armatuaren aurka honako hauek esaten ditu:

- borroka hori ez du berak merezia.
- Belaunaldi hontan bukatzea da eskatzen dedan guzia.
- Ekin behar da adorez,
borrokatzen jardun ordez,

- belaunaldi hontan bukatzea da eskatzen dedan guzia, ondorengoek ez ikustea geuk maizegi ikusia.

Lehenengo bertsoaren amaiera da. Hurrengo belaunaldiek ez ikusi behar izatea belaunaldi horiek maizegi ikusi dutena. Zer ikusi dute belaunaldi horretakoak maizegi?

- alperrik baita askatasuna eskatzea hitz dotorez; geure ekintzez azal dezagun merezi degun edo ez.

Zer esan nahi du honoko hau esatean. Borroka armatuaren inguruan osatu diskurtsoa. Bigarren bertsoaren bukaeran, askatasunaren erreibindikazioak balorea galtzen duela iradokitzen du. Askatasuna eskatzen duenaren ekintzek zilegitasuna ken diezaieketela, hain zuzen ere. Bere burua ere aldarrikapen horren barruan sartzen du, lehenengo pertsona kantatzen baitu. Baina zer nolako ekintzak eskatzen ditu aldarripanen hori merezi izateko? Helburu hori lortzeko bidearen zilegitasunaz ari da. Oso berezia da bere buruaren berkoatze hori. “Ekin behar da adorez, hobena geuretzat gordez” esaten duenean ere, lehenengo pertsona ari da. Herriak borroka hori ez duela merezia esaten du lehenengo bertsoan, hirugarren pertsona, noski.

Hirugarren bertsoan berdintasunaren aldeko aldarrikapen bat egiten du. Berak utzi nahi duen Euskadi:

- ez politika, ez izaeren bereizketan ez erori

Politikaren eta izaeren ezberdintasunak nabarmenduko dituen gizakiek osatutakoa litzateke. Eta hori aldarrikatu aurretik, berriz ere, borroka armatuak lekarzkeen ondorioetaz ari da: sortarazten duen sufrimenduaz, hain zuzen ere.

Bestalde, Aturritik Ebrora dagoen hori definitzeko garaian Euskadi hitza erabiltzen du. Euskadi hitzak kontestu ezberdinak ditu. 2001. urtean ezker abertzale inguruan erabiltzeari utzi zaion hitza da. PNV oraindik ere erabiltzen du. Esanahien interpretazioari ate bat irekita uzten zaio. Euskal Herria zazpi probintziez osatutakoa da. Euskadi, aldiz, batzutan komunitate erkidegoa definitzeko erabiltzen da eta beste batzutan baita zazpi probintziak ere. Konstituzionalistek ez dute Euskal Herria erabiltzen, Euskadi hitza bai, ordea. Horregatik dago, nolabaiteko distantzia, Euskadi hitza erabiltzeko. Nahiz eta laurogeigarren hamarkadan gehiago erabili. Mendiluzek Euskadi hitza darabil. Euskal Herria hitza erabili zezakeen eta baita herria ere.

- hau da neronek gerokoentzat utzi nahi dudana HERRIA.

Edo:

gerokoentzat utzi nahi nuke holako Euskal Herria.

4. BELODROMOA SINBOLO ETA ERREALITATEA

Bertsolarien diskurtsoa banaka interpretatu ostean, orokorrean, egun horretan erabilitako diskurtsoa aztertuko dut. Zortzi bertsolari hauen politikaren diskurtsoak ez du ordezkaturiko bertsolari eta bertsozale guztiek duten politikaren ikuspegi orokorra. Baina une eta gunea ikusirik, bai azaltzen duela diskurtso ofizialaren zantzua zein den. Euskalgintza eta kulturagintzako espresio izanik, nolabait esatearren, euskalgintzaren diskurtsoaren korpua ere bada. Herritar bakoitzak bere diskurtso propioa badu ere, orokorrean, bertsolaritzaren diskurtsoa zein den jakin liteke.

Egun horretan jarritako gaiaren erreferentziaren arabera bertsolariek duten imaginario kolektiboa, orokorrean, zein den ikus liteke. Imaginario kolektibo hori erreferentzia sinboliko, paisajistiko, ekonomiko, juridiko, literario eta baita historikoak ere osatzen badute, hemen, imaginario kolektibo horren zertzelada batzuk edo korpus orokor bat bakarrik atera ahal izango da.

Euskalduntasunaren oinarriak ez daude, oraindik, erabat finkatuta. Euskal identitatearen definizioa difusoa da, oraindik. Hizkuntza ezagutzan, jatorrian edo etnizismoan, abertzale izatearen parametroetan kokaturik dago euskal identitatearen oinarria.

4.1. Terminologia

Terminologiari begiraturaz gero. Gaiak Euskal Herria hitza erabiltzea ekidin du. Horrek esan nahi du konnotaziodun hitza dela Euskal Herria hitza. Aturri eta Ebrok politikoki Euskal Herria den hori definitzen du geografikoki.

Bertsolariek Aturritik Ebrokoa definitzeko erabili dituzten terminologiak hauek dira: Herri, gure herria, Euskal Herri, gure lurra, Euskadi. Alde horretatik, definizio zehatzik ez dago. Nafarroa bezalako terminologiarik ez du inork erabili. Euskal Herri eta Euskadi biak onartuak daude euskaldunen imaginario kolektiboan, nahiz eta konnotazioa ezberdinak eduki.

4.2. Naziotasuna. Herri izaeraren konfirmazioa eta errebindikazioa

Historiaren erreferentzia da herriaren, edo nazioaren, existitzearen oinarria. "Mendetako ibilera" du. Baina, esan bezala, inork ez du Nafarroako erreinuaren aipamenik egiten. Oraindik bameraturik gabe dago herriaren historia politikoa. Eta aldi berean, herriaren parte izateko ikuspegi etnizista (ehun urte atzera sartua) ez dago erabat utzita: "nere aurretik aita nuen ta aitan aurretik aitona...", "alaba bihurtu leike noizbait nere iloben ama". Horren haritik, bada herri izaera horren errebindikatzan den horren irudi perfektu edo gehiegi baloratua: "Hain herri haundi ta berezia".

Errebindikazio fasean dago herriaren existentzia: “Herri bat gera, Euskal Herria, horixe bere izena” eta “hementxe dago herri bat ikusi nahi dunik bada!”. Errebindikazio fasea diot legeen onarpenen aurretik errebindikazio fase bat egoten delako beti.

Ironiarentzat ere bada tarterik. Errebindikazioa onartzeaz gain barre egiten dio bere buruari, herriari: “Herri bat omen gera bai, baina ezin egin aurrera, / lau urtean behin bakarrik elkartzen baldin bagera”.

Sinboloen erabilera nazio ikuspegia garatzen duen imaginarioa kolektiboan handia da. Bertsolaritza bera sinbolo izatetik haratago, belodromoa da herriaren existentziaren sinbolo. Gaiak, berak, hala planteatu zuen: “Aturritik Ebrora herri bat badela belodromoa izan liteke lekuko”. Bertsolariek belodromoaren sinboloa etengabe erabili zuten. Sinboloari kantatzen zioten eta aurrean zutena etengabeko erreferentzia zen: “Belodromoan bizi-bizirik herri baten sentimena”, “Belodromoa txaloaren itsasoa”, “gure herrian liskarrak, / nahiz ta batzutan estali Belodromoko aparrak”. 8.000 euskaldun elkartu ziren belodromoan. Bertsolarien diskurtsoa unifikatua izateak eta sektore ezberdinei erreprotxerik ez egoteak batasun bat sortu zuen, herriaren oinarri dena. Muturreko diskurtsorik gabe “batera herri bat gara” kantatu zuen bertsolari batek. Horretaz gain, hango batasun hura beste noranahi eramateko deia egin zuen bertsolari batek: eguneroko bizitzara, politikako beste arloetara... “Beste noranahi eramateko hemen batu gaituena!” zioen. Belodromoko espirituaz ari da. Zergatik da belodromoa egun horretan Herriaren sinbolo eta batasunaren sinbolo? Zazpi probintziatako eta edade guztietako euskaldunak biltzen dira. Eta hori nahikoa da Herriaren sinbolo izateko. Euskal Komunitatetik kanpo dauden beste bi erdal komunitateak ez dira kontutan hartzen abertzaleen herri osaketaren diskurtsoan.

Ironiarentzako ere badu tokirik belodromoaren sinboloak. Bere borobiltasunak eta txirindularien etengabeko itzulia ere herriaren sinbolo kaotiko bihurturik du:

Herri hau Belodromoa bere zentzu gordinean,
txirindularitza pista hor daukagu eskinean,
Euskal Herria horixe baidegu azken finean;
buelta ta buelta gabiltza, baina irten ezinean.

Bestalde Aturritik Ebrorako horretan, Euskaldunen eremua hartzen da kontutan. Euskal komunitatetik euskal komunitateari hitz egiten zaio. Erdal komunitatea diskurtsoaren barruan sartzen bada ere (pare bat kasutan), apenas duen tokirik erdal komunitatearen sentimen eta iritziak. Beraz, nolabait esatearren, kontzienteki gainontzeko bi komunitateak kontutan hartzen badira ere sinboloak osatzean ez dira kontutan hartzen. Diskurtsoaren barruan “Badakit ondo asko gaudela pentsakera desberdinez” dago aipatua. Baina pentsaera ezberdinekoak Herri deritzon horrek barruan al daude? Nazioaren osaketan non dago kokatua erdal komunitate konstituzional zalea eta frantses komunitate zentralista? Definitu gabeko terminologiak dira. Diskurtsoaren barruan beren tokia hartu ez duten herritarrak. Nabarmenagoa, oraindik, “Badakit gu ez garela sufritu dugun bakarrak” da. Bestearen onarpena badago, baina, zedarritua, gu-tik kanpo dago-

ena. Bi komunitateek talka egiten dute terminologia bateratua ez dagoelako. Dikotomiak: Gu-beraiek, euskaldunak berdin Euskal nazioa, eta Euskaldunak ez diranak?

Hizkuntzari buruzko gogoetarik ez da egin eta egin den bakarra iraganari lotua. Horrek esan nahi duena da, bestalde, diskurtso mailan egoera normalizatu dagoela hizkuntzari dagokionez. Errebindikaziorik ez bada egiten horren beharrik, euskal komunitatearen barruan, ez dagoelako da. Besterik litzake, ziu-rrunik, Aturritik Ebrorainoko biztanle osoari, kontzienteki, kantatuko baliote, eta, kantatu aurretik estrategia horretan osatuko balukete euren diskurtsoa. Orduan, seguruenik, euskararen aldarrikapen diskurtsoak pisu handiena, edo askoz handiagoa, hartuko luke.

“Lehen esaten zen: zer eingo degu gure hizkuntza hiltzean?” dio bertsolariak. Euskerari “gure hizkuntza” deitu dio. Noren hizkuntza da “gure hizkuntza” hori. Jakina da, gutxi gora behera, hiru miloi biztanletik miloi batek duela hizkuntza horren ezagutza.

Iraganaren irudia ez da idilikoa. Gaiak urteetako tristuran kokatzera behar-tzen du bertsolaria. Tristura horren errudun gisara ez da herria azaltzen, ez eta kanpoko faktorerik ere. Ia deskripzio hutsean oinarriturik dago iraganaren tristura hori. Aipatzekoak bi mutur: bataren “herri hau beti izan da zintzoa ta berbakoa”, eta bestetik, “inondik ere egin baitegu erreten sakon sakona”. Batak herria gorai-patzen du eta besteak herriari damaio erruaren zati bat.

“Hemen herri bat ikus dezaket Lizarratik Garazira” eta “gure herria ikusi nahi det gaurko egunan neurrira” kantatu zen. Garbi dago herria osaketa zeren arabera-koak erakikia degoen. Lizarrako akordioa sinatu zutenak, alegia, Aturritik Ebrora herri bat badela baieztatzen dutenak dira herri horren partaide. Besteak, ez dira balizko herri eraikuntza sinbolikoan kontutan hartzen. Azkenik, herria egun horren arabera-koak ikusi nahi izanak abertzaleen batasunean eta euskal kulturaren baitan eraikitako gizarte baten irudiaren gorazarre edo apelazio dira.

4.3. Iragana

Iraganari buruzko ikuspegiari erreparatzean gaiak, berak, bertsolariak zeri erreparatu behar dion mugatu edo erreferentzia eman dio: “Urte asko darama-tzazu zuk nahi baino tristura gehiago ikusiz”. Bertsolariek iragana deskribatzeko erabilitako hitz eta esaldiak hauek dira: “Sufrimenduan”, “bizitza izan da nahiko tritea”, “liskarrak”, “euskaldunok izan dugu borrokalarien fama”, “mendetako ibilera”, “Tamalgarria”, “beti mina, tira-bira”. Orain arteko erreferentzia hauek tonu bati dagozkie. Izan ziren, halere, iragana eta oraina lotzen zuen erreferen-tziarik ere: “Baina herri hau beti izan da zintzoa ta berbakoa”. Nolabait esatea-rren, nahi baino tristura gehiago ikustearen arrazoia herriaren zintzotasuna ber-bakoa izatean dago gakoa. Ideal batzuek, bizitza filosofia batek eta zintzotasunak dakarrena izan da: tristura, mina, sufrimendua. Herriari zintzotasunak sortu du “erreten sakon-sakona”.

Errealitatek haratago doan diskurtso bat erabiltzen da. Herria “zintzoa eta berbakoa izanik”, “mendetako ibileran” bere barruan edo balizko herria osatzen dutenen artekoa izan baita, “Aturritik Ebrora” bitarteko kanpoko eraginak ahaztu gabe, noski.

4.4. Egungo egoera, orainaldia

Bertsolariek, bat-bateko diskurtsoan, orainaldiaren ikuspegiaren deskripzioa eraikitzeko garaian heldu-leku bat baino gehiago erabili zituzten. Gaiak belodromoa aipatzean egiten du orainaldiko erreferentzia: “belodromoa izan liteke leku-kon”. Herriaren konfirmazioa eskatzen badu ere, egungo errealitatearen deskripzio eta konstrukzio osotua egin zuten bertsolariek.

Denek konfirmatu zuten, era batera edo bestera, herriaren existentzia. Herri horren deskripzioa atal ezberdinetan burutu zuten.

Belodromoak sinbolizatzen zuena batasuna zen. Hain zuzen ere, herriari falta zaiona: errealitatea batasun eza izanik, belodromoa mito bat da Aturritik Ebrora herri bat badela ikusten dutenengan: “Belodromoa batasuna da, hori denontzat argi da”.

Herriaren egoeraren deskripzioari dagokionez, gordintasuna adierazten dutenak “Kartzeletako lau horma, eskoltak hara ta hona...”, “bidea emanez beti gerrari”, “Barnean ere pozoia sobran, ta hori da arazoa”, “Gure egoera nahiz ta batzutan izan litekeen gordina” dira.

Bestetik, herriak bizi duen frustrazioa adierazteko “Gure barruan berpiztuz doa borrokako dugun grina” erabili zuen bertsolari batek. Diskurtso horren aurka “borroka hori ez du berak merezia” dago. Batek borrokatu egin behar dela dio, eta besteak, herriak borroka hori ez duela merezia. Hemen gertatu dena erreza da azaltzen. Borroka hitzak, alde batetik, borrokoko armatua esan nahi du, eta bestetik, ezarritako botorearen aurkako eguneroko borroka: aldarrikapenak lortzeko borroka. Horregatik, borrokaren aurka ari dena, borroka armatuari buruz ari da, eta besteak, eguneroko borroka horren beharra aldarrikatzen du.

Bertsolariek, beraien diskurtsoan, zalantza eta galdera erretorikoa darabilte deskripzio gisara eta gauzak planteatze aldera: “Lortuko degun ala ez degun denbora bera da juez”, “geu al gera oztopoa?”, “Mila arazo dauzkagu baina geu ez al gara problema?”, “Konponbidea duena al da gure herriko kasoa?”, “Zein ote irtenbidea ta zeinek ote du giltza?”

Ilusio eta frustrazioa elkar nahasirik doaz. Ilusioa transmititzeko gertaera positiboak aldarrikatzen dituzte: “ilusioa behintzat badegu,”, “Urterik urte aurrera goaz, hautsi dugu zenbait kate”, “ Oraindik ere bizirik gaude”, “Bizirik gaude eta aurrera segi daigun alajaina!”. Frustrazioa adierazteko, berriz, “Eta ate bat itxia”, “-ilusioa ta gero ere dator belarrondokoa”, “Handik atake pozoitsua ta bestetikan eraso”, “ez ote doa gainbehera”, “Ekintzarikan ez dago, hitz politak mingaine-

an”, “Herri hau Belodromoa bere zentzu gordinean / txirindularitza pista hor daukagu eskinean, / Euskal Herria horixe baidegu azken finean; / buelta ta buelta gabiltza, baina irten ezinean”, “Denek berea jarri nahi, denek daukate baldintza”, “aspaldian arregura heldu da euskal mundura”, “politikoen ezina”, “borroka eta auzia”. Frustrazioa kanpoko faktoreei eta barruka ezintasunak sortzen dute.

Beldurra, Gorrotoa eta mina dira egoerak sortzen duena: “Gure lurrean hedatua da bildurra ta gorrotoa”, “bihotzak berriz minbera”, “Irriparrerik ez dago, sufrimentua sobera”, “Seme-alabaren pena”, “Batzuk nahiz dauden aparte”, “Momentu hontan nahiz nagusi den malkoa eta orbaina”, “gorrotoa nagusia”, “hortatik pena ugari”.

Bertsolarien diskurtsoa “gu” konstruktoaren ikuspegitik egina dago. Halere, badira bi zantzu bestearen onarpena dakartenak: “Badakit ondo asko gaudela pentsakera desberdinez”, “Badakit gu ez garela sufritu dugun bakarrak”.

Arazoak konpontzeko elkarrizketaren metodoa saihesten dutenak “gu” konstruktoaren kanpoan daude: “Elkarrizketari zer dela eta horrenbeste erreparatu?”. Eta horren haritik, “Kontua hala omen da: erabakia ta hitza”, hitzaren eta elkarrizketaren beharra azpimarratuz.

4.5. Etorkizuna

Etorkizunaren ikuspegia, gaiak horrela eskatuta denek egiten dute aportazioa:

- Herri aske bat utzi nahi nuke ta herrian aske gizona,
- Askatasuna izan dedila bake bidez iritsia!
- Ez dugu behar geu izateko beste inoren baimena.
- Izango al dugu ahalmena / ta beharrezko den dena beste noranahi eramateko hemen batu gaituena
- gure duintasuna eta gure Euskal Herri askea
- iraganari lotuak baina etorkizunari begira
- segi borrokan jo ta ke!
- etorkizuna begiratzea ez ote da atsegina?
- Ahaztu dezagun zurikeria,
- alperrik baita askatasuna eskatzea hitz dotorez;
- geure ekintzez azal dezagun merezi degun edo ez.

Azken batean, askatasuna (herriarentzat eta norbanakoarentzat), bakea (helburu eta printzipio), herriaren erabaki ahalmen mugagabea, abertzaleen batasuna, borrokaren beharra (ez borroka armatua, baizik, aldarrikapen eta eskubideen berreskuratzea), ilusioa eta duintasuna dira etorkizunerako eskatzen dutena.

Horretarako zer aldatu behar den galde egiten zaie. Bertsolariek, lehenengo aldaketa beharra aldarrikatu zuten:

- aurki dezagun gakoa / behar den bezelakoa
- hurrengoeri ez emateko lehengoei jasotakoa

Ondoren, esperantzaren mezua bidali zuten:

- baina aurretik dugu oraindik egun bat baino gehiago;
- gure herriak duen onena oraindik gordeta dago
- ta esperantza dasta dezala zuen txalo bakoitzean.
- lehengo egoera latza orain da zorionaren balada (etorkizunetik begiratuta)
- gozoa izan dadila gure etxeko gerizpea
- Ta irriparra bihurtuko da orain arteko samina
- Hartuko diegu gaina, baikara herri bikaina.

Azkenik, aldaketak, zehazki, zeintzuk ziren adierazi zituzten:

- nahi nuke orain arteko kate lodia haustea
- Nik Euskadi bat amestu nahi dut Inortxok ez irentsia;
- lagun bihurtu daitezela bai bata ta bai bestea
- errespetuan lehenbailehen
- Nahiko nuke bukatzea behingo baten garai txarrak, kartzela eta torturen testimonio zatarrak, etxera etor daitezela preso berri eta zaharrak
- Hitza bihurtu liteke egunen batean arma
- Atertu behar hortako alde bietako ekaitza
- geldi beharko hortarako hainbeste eraso bortitza.
- Askatasuna nahi det zuentzat: hizkuntza eta kultura; hain zuzen ere gure herriai lapurtu dioten hura.
- Garenak gara, izaten segi, izan mesede zein kalte, orain daukagun gorroto hori maitasun bihurtu arte
- ondorengoek ez ikustea geuk maizegi ikusia Jantzi beharko degu balorez / lehen jantzi zena odol kolorez,
- Ekin behar da adorez, (...) / borrokatzen jardun ordez,
- ez politika, ez izaeren bereizketan ez erori, hau da neronek gerokoentzat utzi nahi dudan Euskadi.
- Gerorako nahi det herri bat ederra ta anitza,

Bertsolariek eskatzen dutena, Belodromoko izpirituak, azken finean, eskatzen duen aldaketa honako hau da: Estatu Espainiar eta Frantsesekiko loturak haustea, denen arteko errespetua eta laguntasuna, preso politikoen kaleratzea, torturen amaiera, hitzaren balioa, bi aldeetako tregua: ETArena eta Estatu Espainiar eta Frantsesena, Euskal kulturaren eta Euskararen indartzea, Euskal izatearen jarraipena, sufrimenduaren amaiera, heriotza politikoen amaiera, borroka armatuaren amaiera, identitate bereizketarik eza: aniztasunean oinarritutako identitatea.

5. BIBLIOGRAFIA

Bertsolari Txapelketa Nagusia. EHBE. 2001.

GARTZIA GARMENDIA. *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak.*

GEERTZ, C. *La interpretación de las culturas.*

SPERBER, Dan. “¿Es pre-racional el pensamiento simbólico?”. In: IZARD, Michel; SMITH, Pierre. *La función simbólica.* Ed. Júcar.

—. *El simbolismo en general.* Ed. Anthropos.